



Ciudades
Amigas
de la Infancia

HAURREN LAGUN DIREN HIRIAK VIII AINTZATESPENAREN ETA JARDUN EGOKIEN VII LEHIAKETAREN OINARRIAK 2017-2018 DEIALDIA



Edizioa:

UNICEF Espainiako Batzordea
Haurren Lagun diren Hiriak Programa
Madril, 2017ko martxoan

Erredakzio-taldea:

Haurren Aldeko Tokiko Politika eta Partaidetzako Saila
Haurren Aldeko Politikak eta Sentsibilizaziorako Zuzendaritza
UNICEF Espainiako Batzordea
Josefina Piñon. Mazars Consultores.

Haurren Lagun diren Hiriak Programa



Ciudades
Amigas
de la Infancia



Aliatuak:



Lege-gordailu:

M-9835-2017

Diseinua eta maketazioa:

Grupo Cooperativo Tangente

Aurkezpena.....	5
1. UNICEF.....	7
1.1. UNICEFi buruz.....	8
1.2. UNICEF Espainiako Batzordea.....	8
2. Haurren Lagun diren Hiriak – HLH Programa.....	9
2.1. Zer da HLH Programa?.....	10
2.2. Zer da Haurren Hiri Lagun bat?.....	11
2.3. HLH Zigilua Deialdiaren helburua.....	12
2.4. Jardun Egokien Lehiaketa Deialdiaren helburua	13
2.5. Udalerrri Aliatuak: Haurren Lagun diren Hiriak programaren aurretiko pausoa.....	14
3. HLH Aintzatespen Zigilua 2017-2018 Deialdia – Lehenengo Eskaera.....	15
3.1. Haurren Lagun diren Hiriak Aintzatespen Zigilua	17
3.2. Deialdian (1. eskaera) parte hartzeko baldintzak	18
3.3. Epeak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.....	19
3.3.1. HLH Zigilua 2017-2018 Deialdia – 1. Eskaeraren faseak eta epeak	19
3.3.2. Interes Adierazpena.....	20
3.3.3. Kandidaturen aurkezpena (dokumentuak).....	20
3.3.4. Zuzentzea	22
3.3.5. Gardentasuna.....	22
3.3.6. Bisitak Udalerrietara.....	22
3.3.7. Emaizaren Jakinarazpena.....	22
3.3.8. Aintzatespena Emateko Ekitaldia.....	23
3.3.9. Aintzatespenaren ondoko Kudeaketa.....	23
3.4. Ebaluaziorako irizpideak eta prozedurak	24
3.5. Babes-klausula.....	27
3.6. Deialdira aurkeztu beharreko dokumentuen Check List-a	28

4. HLH Aintzatespen Zigilua 2017-2018 Deialdia	
– Berritzea	29
4.1. Haurren Lagun diren Hiriak Aintzatespena Berritzea	31
4.2. HLH Zigilua berritzeko baldintzak	32
4.3. Bikaintasun-aipamena eskatzeko baldintzak	34
4.4. Epeak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa	34
4.4.1. HLH Zigilua 2017-2018 Deialdia – Berritzea faseak eta epeak	34
4.4.2. Interes Adierazpena	35
4.4.3. Kandidaturen aurkezpena (dokumentuak)	35
4.4.4. Zuzentzea	37
4.4.5. Gardentasuna	37
4.4.6. Bisitak Udalerrietara	37
4.4.7. Planaren Onespén Ziurtagiria	38
4.4.8. Emaitzaren Jakinarazpena	38
4.4.9. Aintzatespena Emateko Ekitaldia	38
4.4.10. Aintzatespenaren ondoko Kudeaketa	38
4.5. Ebaluaziorako irizpideak eta prozedurak	39
4.6. Babes-klausula	43
4.7. Deialdira (Berritzea) aurkeztu beharreko dokumentuen Check list-a	43
5. Jardun Egokien Lehiaketa - IX. Deialdia	45
5.1. Jardun Egokien Lehiaketa	46
5.1.1. Jardun Egokien ezaugarriak	47
5.1.2. Jardun Egokien kategoriak	47
5.2. Jardun Egoki bat aurkezteko baldintzak	48
5.3. Epeak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa	48
5.3.1. Jardun Egokien Lehiaketa 2017-2018 faseak eta epeak	48
5.3.2. Interes Adierazpena	49
5.3.3. Kandidaturen aurkezpena (dokumentuak)	49
5.3.4. Emaitzaren Jakinarazpena	50
5.3.5. Ekitaldia	50
5.4. Ebaluaziorako irizpideak eta prozedurak	50
5.5. Jardun Egokien Lehiaketan aurkeztu beharreko dokumentuen Check list-a	52
Eranskinak	53



Haurren Lagun diren Hiriak: haurren eskubideen toki-mailako ikuspegiaren aldeko apustua irmoa

Haurren Lagun diren Hiriak nazioarteko ekimen bat da, 2001ez geroztik UNICEFek abian jarria, eta bere helburua da haurren ongizatea bultzatzea, eskubideen ikuspegi batetik haurren eta nerabeen garapen integrala bermatuko duten udal politikak aurrera eramanez.

UNICEFek, programako bere aliatuekin batera eta Haurren Lagun diren Hiriak Zigiluaren bitartez, aintzatetsi eta balioetsi egiten du, dagozkien Tokiko Gobernuak ordezkaturak, lurralde horietan egiten den lana haurren eta nerabeen alde.

Dokumentu honekin, **Haurren Lagun diren Hiriak Programaren** asmoa da HLH Zigilua aintzatesteko, Zigilua berritzeko edo jardun egokietarako (azken hau bai Tokiko Gobernuak bai gizarte-elkarteei irekia) deialdira aurkezteko gidalerroak eta betebeharrak tokiko gobernuak eskaintzea. Gainera, dokumentu honek lantresnak eskaintzen ditu, erreferentziazko eranskinen bitartez kandidaturen prestaketa-lanean laguntzeko.

Haurren Lagun diren Hiriak Programa ekintza hauetan oinarritzen da batik bat: **politika publiko eraginkorrak diseinatzea**, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean oinarritzen direnak (eskubideen eta ekitatearen ikuspegia); **haurren eta nerabeen partaidetza sustatzea** (partaidetzaren ikuspegia) eta **udal mailan haurren munduari lotutako eragile guztien arteko aliantzak bultzatzea** (ALIA ikuspegia). Gainera, Haurren Lagun diren Hiriak programak beste ikuspegi bat barneratzeko prozesuan dihardu orain: **Agenda 2030** ikuspegia. 2015eko irailean, munduko aitzindariak garapen iraunkorrerako ibilbide-orri bat finkatu zuten, 2030ean lortu beharrekoa eta Estatu guztiek bete beharrekoa, konpromiso hori toki-mailara iritsi arte (Agenda 2030 ikuspegia). HLH Programan Agenda 2030 barneratzeko hasierako pausoetako bat izan da Jardun Egokien Lehiaketan toki-mailan eremu horrekin zerikusia duen kategoria bat barneratzea.


UNICEF Espainiako Batzordea. Haurren Lagun diren Hiriak Programa



Ciudades
Amigas
de la Infancia

HLH Zigiluak **Haurren Eskubideen ikuspegian oinarritutako kudeaketa-eredu baten balioa** azpimarratzen du. Eredu horrek Tokiko Gobernuaren barruko **koordinazioa** dakar berekin, tokiko beste eragile batzuekiko koordinazioa, **haurren partaidetza-mekanismo errealak** sustatu eta sortzen dituen eta haurrak eta nerabeak haien politiketan eta jardunetan barneratzeko epe luzerako estrategia bat duena. Eredu horretan, **HLH Zigilua lortzea da lehenengo pausoa** etengabeko hobekuntzaren bideari ekiteko, toki-mailan haurren eta nerabeen eskubide guztiak bete daitezzen lortzeko.

1. UNICEF



1.1. UNICEFi buruz

UNICEF, Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtsa, 1946an eratu zen, Europan Bigarren Mundu Gerraren ondoren haurren premiei erantzuteko. Sortu zen unetik, umeei jardutea izan du asmo –etnia, nazionalitatea eta erlijioa gorabehera–, eta umeen eskubideak beste ezerean gainetik babestea.

1953an organismo iraunkor bilakatu zen Nazio Batuen barnean, eta bere zeregina da haurren premiei erantzutea eta haien eskubideak babestea. Bere jarduna Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean (ONU, 1989) oinarritzen da, munduan giza eskubideei buruzko hitzarmenik onartuena, hain zuzen. 1989an Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena onetsi zenetik, UNICEFen ekintza eskubideen ikuspegi unibertsal baten barruan kokatzen da. Espainiak 1990ean berretsi zuen hitzarmen hori, **BOEn, 313. zk., 1990eko abenduaren 31koan** bilduta geratu den moduan.

UNICEF 190 herrialdetan baino gehiagotan dago. Bere jarduna mundu osoan dituen bulegoen bitartez garatzen da. 1965ean, UNICEFek Bakearen Nobel Saria jaso zuen eta 2006an Asturias Printzearen Elkartasunaren Saria haurren eta nerabeen alde egiten duen lanagatik.


1.2. UNICEF Espainiako Batzordea

UNICEF Espainiako Batzordea **1961**ean hasi zen bere aurreneko pausoak ematen, eta gaur egun Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtsaren zereginean laguntzen duten 36 Batzorde Nazionaletako bat da. 17 Autonomia Erkidegotan dago, dagozkion batzorde autonomikoen bitartez. Dituen 850 boluntario baino gehiagok, 165 langileek eta 340.000tik gora bazkide eta emaileek laguntzen dute UNICEF Espainiako Batzordetik erakundearen lanean bai Espainian bai mundu osoan.

UNICEF Espainiako Batzordetik, haurren bizitza hobetu nahi dugu, gure mugetatik harago eta gure muge barruan, non haien eskubide guztiak bete daitezzen ere dihardugun lanean. Espainiako gizartearen solidaritateak eutsi eta bultzatzen gaitu haurren kausarekin, eta uste osoa dugu, elkarrekin batera, behar adina indar batzen dugula milaka, milioika haurren bizitza aldatzeko. Hala, UNICEFen zeregina da planetako 7.000 milioi biztanleek haurren eskubideak ezagutu eta babestu ditzaten lortzea, une oro eta leku orotan.

Espainian, haurren eskubideen inguruko ekintzetatik –hezkuntzaren eremuan eta intzidentzia politikoan– abiatuta egituratzen da UNICEF Espainiako Batzordearen jarduna, politika publikoei eta haurren egoerari buruzko azterlanetatik eta ikerlanetatik abiatuta. Eta, izan ere, hor kokatzen da ere bai Haurren Lagun diren Hiriak Programa.

2. Haurren Lagundiren Hiriak – HLH Programa



Haurren Lagun diren Hiriak — HLH Programa

2.1. Zer da HLH Programa?

Haurren Lagun diren Hiriak Programaren asmoa da haurren eta nerabeen bizi-baldintzak hobetzen laguntzea, udal politika eraginkorrak sustatuz eta ezarriz, haien garapen integrala eskubideen ikuspegiarekin bermatzeko. UNICEF Espainiako Batzordea da programa honen buru, eta erakunde hauekin aliantzan garatzen da: **Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioa, Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioa (FEMP) eta Haurren eta Nerabeen Premia eta Eskubideetarako Unibertsitate Erakundea (IUNDIA)**. Lau erakunde horiek osatzen dute Programaren Idazkaritza Iraunkorra, hau da, bere estrategia finkatzeaz arduratzen den organo elkargokidea.

Haurren Lagun diren Hiriak Programak ikuspegi hauek ditu:

SAREKO lana: Haurren eta Nerabeen aldeko toki-mailako Aliantzen (ALIA) ikuspegia tokiko politiken garapenerako ikuspegi estrategiko bat da, tokiko gobernuen, beste instituzio publiko batzuen eta hainbat gizarte-erakunderen arteko lankidetzan oinarritutako politikak aurrera eramateko.

Partaidetza: Hurrei eta nerabeei ahotsa ematea, haien iritziak eta proposamenak kontuan har daitezen Tokiko Gobernuen, erakundeen eta, oro har, pertsona helduen erabakietan. Hau da, haurrak erasaten dituzten arazoetarako irtenbideak identifikatu eta abian jartzeko tresna eraginkor eta erreal bat izan dadin.

Ekitatea: Inklusio eta kohesio soziala toki-mailan, ekintzak talde kalteberenetan fokatuz. Hau da, ahaleginak egitea "atzean geratzeko" arrisku handiena duten haurrak babesteko.

Agenda 2030 ikuspegia: Nazioarteko Agendak barneratzea, toki-mailatik ezartzea eskatzen dutenak, ikuspegi global batez, ordea. Batetik, ikuspegi horrek Agenda 2030ari egiten dio aipamen espezifiko, zeinak Garapen Iraunkorraren Helburuak hartzen dituen barnean, 2015eko irailean Nazio Batuen Batzordeak onetsiak. Estatu guztietan ezarri beharreko bere **Garapen Iraunkorrerako 17 Helburuetan (GIH)** eta haiei lotutako **169 xedeetan** zehar, hiru dimentsiori heltzen zaie: soziala, ekonomikoa eta ingurumenari dagokiona. Ibilbide-orri hori, beraz, funtsezko tresna da munduko gobernuak haur eta gazte guztien garapenaren eta babesaren alde hartua duten konpromisoa indartzeko. Gainera, ikuspegi horrek **Habitat III**ri egiten dio aipamen. Hiri Agenda Berriak, Nazio Batuek antolatutak eta 2016an Quiton onetsiak, hiri-kokalekuak guztiontzako gune bilakatzeko erronkak finkatzen ditu.

2.2. Zer da Haurren Hiri Lagun bat?

Haurren Hiri Lagun batek (HLH) Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean (HEH) bildutako haurren eskubideak errespetatu eta aplikatzen ditu bere politiketan, arauetan eta programetan.

Haurren Hiri Lagun izateak hauxe adierazten du, HEH toki-mailara eramatea, haurrei eta nerabeei eskubide hauek aintzatetsiz:

- Haien ahotsak, ideiak eta iritziak, nahi duten udalerriari buruzkoak, entzunak eta kontuan hartuak izan daitezzen beren familietan, komunitateetan, gizarte-ingurunean eta tokiko Gobernuan.
- Haiek egindako ekarpenarekin espazio hobeago bat sortzen da herritar guztien bizikidetzarako.
- Haur guztiek dituzte aukera berdinak, haien sorburua, erlijioa, diru-sarrera, generoa edo desgaitasuna edozein izanik ere.
- Haur guztiak daude esplotaziotik, abusutik edo indarkeriatik babestuta.
- Haur guztiak ibil daitezke bakarrik eta seguru kaleetatik.
- Haur guztiek dituzte elkarguneak eta jolaslekuak lagunekin partekatzeko baita berdeguneak eta kutsatu gabeko ingurumena ere.
- Haurrek ekitaldi sozial eta kulturaletan parte har dezakete.
- Haur guztiek jasotzen dituzte oinarrizko osasun eta hezkuntza-zerbitzuak.



2.3. HLH Zigilua Deialdiaren helburua

Haurren Hiri Laguna Aintzatespen Zigilua emanez, deialdi honen xedea da **haurren eskubideen ikuspegi batekin** Tokiko Gobernuak aurrera eramaten duten kudeaketa-eredu bat aintzatestea. Zigilu horrek adierazten du tokiko gobernuak haurren tokiko politika bat duela, politika hori haurren eta tokiaren errealitatearen partaidetzazko (haurrak barne) diagnostiko batean oinarritzen dela; tokiko gobernuak **Haurren eta Nerabeen partaidetza-organo**¹ dinamiko bat duela solaskidetzat, eta politika horren diseinuan, ezarpenean, segimenduan eta ebaluazioan tokiko agintariek eta talde teknikoak **sarean lan egiten dutela**, udalaren barne-mailan nahiz kanpo-mailan.

Haurren Hiri Laguna Aintzatespen

Zigilua (aurrerantzean, HLH Zigilua) emanez egiten da aintzatespena. Sari horrek lau urteko indarraldia du eta Tokiko Gobernuak hitzarmen bat sinatuz konpromiso batzuk bere gain hartzea dakar berekin, besteren artean, bitarteko txosten bat aurkeztea, non Haurren Tokiko Planaren aplikazioan izandako aurrerapenen berri eman behar duen. Lau urteak amaituta, saria iraunarazi nahi duen tokiko gobernuak, aintzatespena berritzeko, berriro aurkeztu beharko da deialdira.

Tokiko Gobernu bat Haurren Hiri Laguna aintzatespena izateak haurren eskubideen ikuspegi batekin diagnostikatzea, planifikatzea eta ebaluatzea eskatzen du, programetan eta politikan Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena kontuan hartuz, eta haurren eta nerabeen partaidetza barnean hartuz, toki-mailako eragile-protagonista diren aldetik.

- Tokiko Gobernuak oinarrietan zehaztutako baldintzak betetzen dituenean eta HLH Zigilua lehen aldiz jasotzen duenean.
- Haurren eta Nerabeen Tokiko Plana – aurreko deialdiaren Aintzatespenean onetsia– gauzatu eta ebaluatu ondoren Zigilua berritzen duenean, eta aintzatespenaren berritzea elkarren segidakoa denean, berrikuntzari dagozkion irizpideak betez gero.
- Deialdira berriro aurkeztzen denean, prozesu jarraitu bat izan gabe ere, eta lehenengo deialdiko oinarrietan bildutako baldintzak betetzen dituenean.

Tokiko Gobernuak, oinarrietan ezarritako irizpideak neurri handi batean betetzen dituela irizten badio, bikaintasun-aipamen bat dakarren aintzatespena eska dezake bere eskaeran.

¹ Haurren eta nerabeen partaidetza-organoek izen desberdinak hartzen dituzte; Kontseiluak, Batzordeak eta Foroak dira ohikoenak.

2.4. Jardun Egokien Lehiaketa Deialdiaren helburua

Jardun Egokien Lehiaketak ekintza eta proiektu zehatzak saritzen ditu, Tokiko Gobernuak edo hainbat gizarte-erakundek (ikastetxeak, elkarteak, fundazioak, Ikasleen Guraso Elkarteak eta abar) sustatuak, haurren eskubideen ikuspegi batekin Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean oinarrituak, eta haurren eta nerabeen ongizatea bultzatzera bideratuak.


Tokiko Gobernu edo erakunde bakoitzak jardun egoki bakar bat aurkeztu ahal izango du deialdi honetan. Jardun Egokiak kategoria hauetan aurkez daitezke:

1. Haurrek eta nerabeek egindako hiri-plangintza iraunkorra.
2. Haur eta nerabe kalteberenei arreta emateko programa eraginkorrak.
3. Haurren eta nerabeen partaidetza-estrategia berritzaileak.
4. Hezkuntza-eremuetan eta sare sozialetan, gune partekatuetan, indarkeria-arazoei heltzea.
5. Inklusio sozialaren –generokoa, kulturala, etnikoa edo ekonomikoa– eredu arrakastatsuak.
6. Haurren eta nerabeen ongizatea hobetzera zuzendutako kanpaina eraginkorrak.
7. Agenda 2030 edo Habitat III Agenda toki-mailan aplikatuta, haurren eskubideen ikuspegi batekin.

Era berean, **kategoria espezifikoak** finkatzen dira HLH Aintzatespen **Zigilua indarrean duten Tokiko Gobernuentzat**, HLH kudeatzeko moduei buruzko ikaskuntzak sorrarazteko eta partekatzeko asmoz:

8. HLH Kudeaketa Ereduen esperientzia errepikagarriak

Kategoria honen adibide gisa, ondoko esperientziak aurkeztu ahal izango dira: haurren eta nerabeen Partaidetza Organoen eraketa; Koordinazio Mahaia, barne-mailakoak nahiz kanpo-mailakoak; partaidetzazko Diagnostikoen lanketa; Haurren Tokiko Planen lanketa, segimendua eta ebaluazioa. Gainera, Programaren lan-lerroetakoren batean izandako beste esperientzia edo hurbilketa metodologiko berritzaile batzuk ere kontuan hartuko dira. HLH Kudeaketa Ereduetako esperientzia errepikagarrien proposamenek, indarrean dagoen HLH Zigiluaren saridun den Tokiko Gobernu baten aldetik burutu izandakoenek, bat etorri behar dute Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenarekin.



2.5. Udalerrri Aliatuak: Haurren Lagun diren Hiriak programaren aurretiko pausoa

Tokiko Gobernuaren eta UNICEF Espainiako Batzordearen arteko lankidetzak iraunkorra "udalerrri aliatu" formularen baitakoa izan daiteke. Alkatetzak sinatutako gutun bat aurkeztuz eskuratzen da, UNICEFeko batzorde autonomikoari nahiz UNICEF Espainiako Batzordeari fisikoki edo online igorritz. Bertan, Haurren Lagun diren Hiriak Programaren irizpideei jarraituz lan-prozesuari hasiera emateko konpromiso politikoa eta teknikoa bere gain hartzen du Tokiko Gobernuak.

Tokiko Gobernuaren aldetik "udalerrri aliatu" izateko eskaera edozein unetan egin ahal izango zaio UNICEF Espainiako Batzordeari. HLH Programara atxikita egoteak ez du esan nahi Haurren Hiri Lagun gisa aintzatetsia egotea, aurretiko egoera adierazten baitu, non Haurren Hiri Lagun Aintzatespen Zigiluaren baldintzak epe ertainera lortzeko konpromisoa ezartzen den.

Udalerrri Aliatu bihurtzean, Tokiko Gobernuaren eta UNICEF Espainiako Batzordeko dagokion bulego autonomikoaren arteko bileren/ komunikazio-prozeduren plan bat adostuko da, haurren eta nerabeen aldeko ekintza-lerroak eta proiektuak batera diseinatu, gauzatu eta ebaluatzea erraztuko duena, HLH Programak ezarritako irizpideetan oinarrituta.



3. HLH Aintzatespen
Zigilua 2017-2018
Deialdia
– Lehenengo Eskaera



HLH Aintzatespen Zigilua 2017-2018 Deialdia – Lehenengo Eskaera

Haurren Lagun diren Hiriak Programako Idazkaritza Iraunkorrak Tokiko Gobernuari ematen dien HLH Aintzatespen Zigilua lortzeko, beharrezkoa da Eskaera bat aurkeztea bi urtean behin egiten den **HLH Zigilua Deialdira**.

Tokiko Gobernuak deialdira aurkez daitezke aldezturik **“Udalerri Aliatu”** izateko eskaera egin behar dute. UNICEF Espainiako Batzordeko dagokion batzorde autonomikoari Alkatetzak sinatutako gutun bidez egingo da eskaera. Gutun horretan, Haurren Lagun diren Hiriak Programaren irizpideei jarraituz udalerria eraikitzeko prozesuari hasiera emateko konpromisoa hartzen da. HLH aintzatespen deialdira **deialdiaren baldintzak betetzen dituen Tokiko Gobernu oro aurkez daiteke, Udalerri Aliatu izan ala ez**.

Deialdiaren ebaluazioaren ondoren, HLH Zigilua lortuz gero, lankidetzahitzarmen bat sinatuko da UNICEF Espainiako Batzordearen eta Tokiko Gobernuaren artean.

Zigiluak **lau urteko indarraldia** du, eta Tokiko Gobernuak nahitaez aurkeztu behar du bitarteko txosten bat Haurren eta Nerabeen Tokiko Planaren exekuzio-mailari buruz, zigilua lortu eta handik bi urtera. Era berean, partaidetza aktiboa izan behar du HLH Programan: Programak proposatutako ekitaldietara eta prestakuntza-saioetara bertaratzea, UNICEFen Batzorde autonomikoarekin harremanetan egotea, eta Programak ezarritako irizpideak denboran iraunkorki betetzea.

Programak kudeaketa-eredu jarraitua eta haurren eskubideen ikuspegia duena aintzatesten duenez, akreditazio horri eutsi nahi dion Tokiko Gobernuak, lau urteak igaro ondoren, Zigilua **berritzea** eskatu ahal izango du, beste lau urteko aldirako. Hala, indarraldia amaitzean, berriro aurkeztu beharko da deialdi berri batera, eta horretarako bere Haurren Planaren xedeak eta adierazleak bete dituela ziurtatu beharko du, edota politika eraginkorrak garatu eta benetako aliantzak sortu dituela.

3.1. Haurren Lagun diren Hiriak Aintzatespen Zigilua

HLH Zigiluak haurren eta nerabeen aldeko udalaren edo Tokiko Gobernuaren politiken eta ekintzen diseinuan eta garapenean ondoko irizpideak eta prozedurak kontuan hartu direla **ziurtatzen du**:

A. Burutu diren haurren eta nerabeen aldeko **Politikak eta Ekintzak**:

- Eskubideen ikuspegia izatea, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenari (aurrerantzean HEH) jarraituz.
- Haurren eta Nerabeen Tokiko Planarekin bat etortzea.
- Partaidetzazko prozesu baten bidez egindako diagnostiko batean oinarrituta egotea.
- Partaidetzaz diseinatuta egotea, bai Tokiko Gobernuaren barruko eragilean bai gizarte-erakundeen, Ikasleen Guraso Elkarleen edo bestelakoen partaidetzarekin, eta betiere estrategiak diseinatzeko prozesuan haurrak funtsezko eragile direla kontuan hartuta.
- Haurren eta nerabeen premiei eta eskubideei erantzuten dieten emaitzak lortzera bideratuta egotea, Tokiko Gobernuari dagozkien eskumenetatik eta baliabideetatik harago egingo den lan integratu baten bila, dagozkien betebeharren titular diren aldetik.

B. Udal bizitza publikoan **Haurren eta nerabeen partaidetza aktiborako** kanalak ezartzea eta bultzatzea, ondokoen bitartez:

- Ahotsa duten herritar diren aldetik beren partaidetza sustatzea, dagozkien gai guztietan beren iritzia askatasunez emateko eskubidea dutela aintzatetsiz, eta betiere beren iritzia behar bezala kontuan hartuz, neska-mutilaren adinaren eta heldutasunaren arabera.
- Informatuak eta entzunak izateko eskubidea dute baita beren oharrak eta proposamenak komunitatearen gobernatzaileek eta erakunde desberdinek kontuan hartzekoa ere.
- Haurren eta nerabeen partaidetzak nabaria izan behar du Zigilu hau lortzeko kandidatura prestatzean (Haurren eta Nerabeen Tokiko Plana lantzean kontsultatu egin behar zaie gutxienez).
Haurren partaidetza-organo bat dagoela egiaztatu behar da.



C. Tokiko Aliantzak sortzea, haurren eta nerabeen eskubideen eta ongizatearen aldeko lan egituratu bat lortzeko:

- Tokiko Gobernuen, Administrazio Publikoen eta gizarte-erakunde desberdinen artekoa (alderdi politikoak, elkarteak, fundazioak, sindikatuak, ikastetxeak eta unibertsitateak, enpresak eta abar).
- Beste eragile batzuk, beste maila batzuetako erakunde publikoetakoak nahiz pribatuak mobilizatzeko ahalmena, elkarrekin batera dagokien jardute-eremu geografikoan baliabideak haurrentzat bideratzeko.



D. Tokiko Gobernuaren ahalmenak, beren tamainaren, baliabideen eta eskumenen, erantzukizunen eta lehentasunen arabera, ondokoetarako:

- Komunikaziorako guneak eta informazio zentralizatua hedatzeko kanalak sortu eta sustatzea.
- Barnean antolatzeko eta HLH Programa udal eremu desberdinetan zeharka burutzeko ahalmena, **barne-koordinazio mekanismo** baten bitartez.
- Baliabide espezifikoak (langileak, barne-egitura, aurrekontua) haurrei eta nerabeei zuzenduak.
- Haurren eta Nerabeen Tokiko Plan bat diseinatu eta burutzea, HEHn inspiratua eta partaidetzazko diagnostiko batean oinarritua.
- Jardueren Memoria bat lantzea, non burututako ekintzak balioesteko eta kritikatzeko gaitasuna islatuko den, baita Planarekin bat datozela ere.

3.2. Deialdian (1. eskaera) parte hartzeko baldintzak


Eskaera egiten duten erakundeek ondoren adierazten diren baldintzak bete beharko dituzte Zigilura aurkezteko, baldin eta zigiluaren jabe ez badira (edo eguneratuta ez badago, hau da, gutxienez azkeneko lau urteetan berrituta ez badago):

- **Tokiko Gobernu bat izatea** (Udala, Mankomunitatea).
- **Haurren partaidetza-organo bat** izatea, Tokiko Gobernuak Deialdia amaitzen den data baino lehen sustatua, babestua eta aintzatetsia (2017az geroztik gutxienez udal eremuan hurrek parte hartzen dutela egiaztatu behar da).
- Tokiko Gobernuaren **barne-koordinazio mekanismo** bat ezarrita izatea (gutxienez Jardueren Memoria, Diagnostikoa eta Haurren eta Nerabeen Tokiko Plana lantzeko operatibo egon behar zuena).
- Tokiko Gobernuaren web orrian, dagokion tokiko herritarrek kontsultatzeko, deialdi honetan aurkeztutako dokumentuak eskuragarri izatea: Memoria, Diagnostikoa eta indarrean dagoen Tokiko Plana (gehieneko epea 2018/06/15). Dokumentu horiek Zigilua indarrean egongo den epearen aldian zehar egon behar dute esekita web orri horretan).
- Deialdiaren Oinarrietan eskatzen diren **dokumentuak** ezarritako epeetan prestatu eta aurkezteko jarrera eta baliabideak izatea. Positiboki baloratuko dira Haurren eta Nerabeen Tokiko Planaren mozioa, Osoko Bilkurak onetsita, UNICEF Espainiako Batzordeari bidali izan dioten Udalerriak.

3.3. Epeak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

3.3.1. HLH Zigilua 2017-2018 Deialdia – 1. Eskeraren faseak eta epeak

Ekintzak Udalerriak:



Datak:



Ekintzak UNICEF:



Hala badagokio, UNICEFek beharrezko zuzenketen eta zuzenketak egiteko epearen berri emango du

Bisitak Udalerrietara

Emaitzaren Jakinarazpena

Ekitaldia

3.3.2. Interes Adierazpena

Tokiko Gobernuak UNICEF Espainiako Batzordeari Deialdian parte hartzeko **Interes Adierazpena** bidaltzeko gehienezko epea Deialdiaren Oinarri hauek atera eta argitaratzen direnetik **2018ko urtarrilaren 31ra** arte izango da.

Interes Adierazpena osatzeko behar dira:

Interes Adierazpena

2018/01/31ra
arte

Alkateak sinatutako interes-adierazpenaren gutuna: Tokiko Gobernuko arduraduna gutun bidez zuzenduko zaio Haurren Lagun diren Hiriak Programako Idazkaritza Teknikoari Aintzatespen Deialdian parte hartzeko eskaera eginez..

Online formularioa: Programaren web orrian inskribatzeko (online plataforma), Tokiko Gobernuari eta prozesu horretarako kontaktuari buruzko oinarrizko datuak adieraziz.

2018/06/15era
arte

Onetsitako mozioa: Eskaera-gutunari Osoko Bilkuran onetsitako mozioa erantsiko zaio, Udaleko Idazkariak ziurtatua eta 2017. urtearen aurrekoa izango ez dena (edo, horren ezean: alderdi politikoek sinatutako akordioa –Osoko Bilkuran 18.06.15aren aurretik berrestekoa eta berretsi ondoren UNICEFi berehala bidali beharrekoa– edota Gobernu Batzordeak igorritako ziurtagiria).

Mozioak Osoko Bilkurari proposatuko dio Haurren Lagun diren Hiriak Programak ematen duen Aintzatespen deialdian parte hartzeko UNICEF Espainiako Batzordeari eskaera egitea, UNICEF Espainiako Batzordearekin batera lankidetzan aritzeko konpromisoa hartuz, udalerrian Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena aplikatzen dela bermatzeko.

3.3.3. Kandidaturen aurkezpena (dokumentuak)

Derrigorrezko dokumentazioa **2018ko apirilaren 30era** arte bidali ahal izango zaio UNICEF Espainiako Batzordeari. Dokumentu nagusiak bakarrik bidaliko dira, eta UNICEF Espainiako Batzordeak eskatu ahal izango dituen eranskinen zerrenda.

Ondokoak aurkeztuz bidaliko dira kandidaturak:

Kandidaturaren dokumentuak

2018/04/30era
arte

Kandidaturaren **formulario-laburpena**, web plataforman (online) betea. Eskaeraren formulario-laburpenean Memoriaren, Diagnostikoaren eta Haurren eta Nerabeen Tokiko Planaren funtsezko elementuak adieraziko dira, ezarritako jarraibideak betez, betiere.

Formularioan, bestalde, hauei buruzko informazioa gehituko da:

a. Haurren Partaidetza Organoa

Haurren partaidetza-organoari dagokionez, argi adierazi behar da:

- Haurrek udal-eremuko jardueretan parte hartzen dutela (gutxienez 2017az geroztik).
- Haurren Partaidetza Organo bat dagoela, Udalerriak sustatua, babestua eta aintzatetsia.

b. Barne Koordinazio Mekanismoa

Barne-koordinazio mekanismoari dagokionez (mahaia edo beste batzuk), argi adierazi behar da:

- Jarduerak burutzen direla, kandidatura honetako dokumentuen lanketari dagokionez, gutxienez.

Gogorarazi behar da deialdirako nahitaezko baldintza dela aldez aurretik Haurren Partaidetza Organo bat sortuta egotea eta Barne Koordinazio Mahai bat eratuta egotea haur eta nerabeentzako Tokiko Gobernuko Zinegotzigoen eta Sailen artean.

Haurren eta Nerabeen aldeko **Jardueren Memoria**

Aintzatespena lehendabiziko aldiz eskatzen duten Tokiko Gobernuak –baita eguneratu gabe dutenek ere– Aintzatespenerako eskatutako dokumentuak aurkeztu aurreko hamabi hilabeteetan aplikatu dituzten baliabideak eta burutu dituzten ekintzak idatziz jaso behar dituzte gutxienez. Hau da, memoria bat aurkeztu behar dute, haurren alde eta haurrekin burututako ekintza nagusiak bilduko dituen, baita xede horretara zuzendutako baliabideak ere.

2016ko edo 2017ko Memoriak onartuko dira.

Haurren eta Nerabeen **Diagnostikoa** udalerrian

Beharrezkoa izango da txosten eguneratu bat aurkeztea, haurren eta nerabeen errealitatea udal testuinguruan deskribatu eta kuantifikatuko duena, 0-8 urte bitarteko populazioan enfasi berezia jartzen duten datu sozioekonomikoak emanez.

Plangintzari bide emango dion Diagnostikoa egiteko data ez da 2015. urtearen aurrekoa izango, **2015. urtetik aurrerakoa** baizik.

Haurren eta Nerabeen Tokiko Plana

Haurren eta Nerabeen Tokiko Planak haien premiei eta eskubideei erantzun behar die, Tokiko Gobernuak dituzten eskumenen, baliabideen eta lehentasunen esparruan, eta dagozkien eskumenetatik harago jarduteko aukera emango dieten aliantzak sortzeko duten ahalmenean oinarrituta, dagozkien betebeharren titular diren aldetik lan integratu bat lortzeko.

Tokiko Gobernuak, haurren eskubideen sustapena, hornikuntza eta babesa bermatzearren, abian jarriko dituen helburuak, xedeak, adierazleak, estrategiak, ekintzak, baliabideak, segimendu-sistemak, inplementazio eta ebaluazioa, eta aurrekontua garatuko ditu Plan horrek.

Aurkeztutako Planak aintzatespenaren aldirako (2018ko azaroan hasten dena) indarraldia izan beharko du. Jardunaren muga lau urtekoa izatea gomendatzen da, HLH Zigiluaren indarraldiarekin bat etorritz.

Positiboki balioetsiko da Udalaren Osoko Bilkurak Plana onestea, zigilua aurreneko aldiz eskatzen dutenentzako bete beharreko baldintza ez bada ere.

* Dokumentuei buruzko Ohar Orokorrak:

Dokumentuaren pisuak ezin du izan 10 MB-tik gorakoa. Ahal bada, ez kargatu dokumentuak irudi gehiegirekin edo bereizmen handiko irudiekin.

Dokumentu nagusi bakoitza online plataformaren bidez entregatuko da, eta eranskinen aurkibide bat gehitu beharko zaio. Eranskinak eskatzailearen eskuetan egongo dira, eta eskuragarri egongo dira UNICEF Espainiako Batzordeak eskatu ahal izango baditu egiaztapenerako edo haien berri gehiago jakiteko

Oinarrien Eranskinetan dokumentu horiek lantzeko Gida bat aurkezten da.

3.3.4. Zuzentzea

UNICEF Espainiako Batzordeak, eskaera jaso eta gero, dokumentazio edo informazio gehigarria edo falta dena **eskatu ahal izango du**, eta akatsak zuzentzeko epea jakinaraziko dio Tokiko Gobernuari.

Aldez aurretik bidali den dokumentazioan bakarrik onartuko da akatsen zuzenketa, eta betiere UNICEF Espainiako Batzordeak espresuki eskatuta.

UNICEF Espainiako Batzordeak komunikazio elektronikoak erabiliko ditu akatsak zuzentzeko eskaera horiek helarazteko.

3.3.5. Gardentasuna

Tokiko Gobernuek beren web orrian argitaratu behar dituzte iraunkorki Deialdira aurkeztutako ondoko dokumentuak:

- Haurren eta Nerabeen aldeko Jardueren Memoria
- Haurren eta Nerabeen Egoeraren Diagnostikoa udalerrian
- Haurren eta Nerabeen Tokiko Plana

Dokumentuek 2018ko ekainaren 15etik aurrera gutxienez egon behar dute eskuragarri herritarrek kontsultatu ditzaten, eta gardentasun eta kontu-emate printzipioei jarraitu behar diete.

3.3.6. Bisitak Udalerrietara

Ebaluazio-prozesuaren osagarri diren bisitak programatuko dira udalerriekin koordinazioan, 2018ko apiriletik hasita eta 2018ko urrian Deialdia ebazten den arte.

Kandidatu guztien artetik, UNICEF Espainiako Batzordeak udalerrri-talde bat hautatuko du, ebaluazioko bisita horien xede izango direnek osatua. Hautaketa hori objektiboki egingo da ebaluazio-sistemaren barruan, argibideak ematea edo informazioa zabaltzea beharrezkoa denean, edo positiboki balioesten denean aurkeztutako dokumentazioa kandidaturen errealitatearen eremuari buruzko ezagutzarekin osatzea.

Bisita horiek UNICEF Batzorde autonomikoarekin, Tokiko Gobernuarekin eta Programako Idazkaritza Iraunkorra ordezkatzeko duen ebaluazio-teknikariarekin koordinazioan egingo dira beti.

UNICEF Espainiako Batzordeko ebaluatzailearen lekualdaketa- eta egonaldi-gastuak Tokiko Gobernuak ordainduko ditu.

3.3.7. Emaizaren Jakinarazpena

Deialdi honen emaitza, eta beraz, Aintzatespen Zigiluarena, 2018ko urriaren 15etik 31ra bitartean ezagutuko dute kandidatuak.

3.3.8. Aintzatespena Emateko Ekitaldia

HLH Programako Idazkaritza Iraunkorrak behin Deialdia ebatzi ondoren, eta emaitza jakinarazten denean, aintzatespena emateko ekitaldi bat egingo da 2018ko azaroan zehar. Behar adina denborarekin emango da ezagutzera aintzatetsitako udalerriei Zigilua emateko ekitaldiari harrera egingo dion hiria.

Ekitaldira bertaratzeak sorrarazitako gastuak saritutako Tokiko Gobernuak ordainduko ditu.

3.3.9. Aintzatespenaren ondoko Kudeaketa

Aintzatespen Zigilua lortzeak Tokiko Gobernuaren eta UNICEF Espainiako Batzordearen artean lankidetzako **hitzarmen bat sinatzea** dakar berekin, eta lau urtekoa izango da bere iraunaldia.

HLH aintzatetsitako udalerriak gutxienez **plaka** bat jarriko du Haurren Hiri Lagun gisa identifikatuko duena, eta Haurren Hiri Lagunen logotipoa ere gehituko du haurrei eta nerabeei zuzendutako Tokiko Gobernuaren jardueretan. Hiriko seinale horien diseinua UNICEF Espainiako Batzordeak emango du, bere ordezkaritza autonomikoen bitartez. Diseinu horien tamaina doitu ahal izango da, baina ezin izango da inoiz aldatu dagozkien beste edozein elementu.

HLH Zigilua lortzen den unetik, Tokiko Gobernuak deialdira aurkeztutako **Haurren eta Nerabeen Tokiko Plana** gauzatzeko konpromisoa hartzen du, baita urtero aurrekontu-partidak plan horretan inbertitzera bideratzeko ere.

Era berean, udalerriak Planaren **segimendu-sistema bat hartzeko konpromisoa hartzen du**, bere inplementazioaren aurrerapenak ezagutzea ahalbidetzen duena, esperotako emaitzak ematen ari ote den ikusteko.

Planaren ezarpenaren erdian (HLH Aintzatespen Zigiluaren bi urteko indarraldian), udalerriak **Bitarteko Txosten** bat aurkeztu beharko dio UNICEF Espainiako Batzordeari, lortu dituen aurrerapenak azalduz.

Bitarteko txostena egitean ebaluazio-txostena hartuko da kontuan, UNICEF Espainiako Batzordeak Deialdia ebazten den unean entregatuko duena, eta bertan, haurren tokiko bere politikaren alderdi sendo eta hobekuntza-eremu nagusiak jakinaraziko zaizkio Tokiko Gobernuari. Bitarteko txostena Haurren Tokiko Planaren segimendu-mekanismoetan egongo da oinarrituta, besteren artean. Dokumentazioa sistematizatzeko, formatu espezifiko bat planteatuko du UNICEF Espainiako Batzordeak.

HLH Zigiluaren indarraldi osoan zehar, dagokion tokiko herritarrek kontsultatzeko, Tokiko Gobernuaren web orrian eskuragarri egongo dira deialdi honetan aurkeztutako dokumentu guztiak: Diagnostikoa, Memoria eta indarrean dagoen Haurren eta Nerabeen Tokiko Plana.

3.4. Ebaluaziorako irizpideak eta prozedurak

HLH aintzatespen Deialdian lehiatzen diren kandidatei buruzko ebazpena HLH Programa sustatzen duten instituzioen² ordezkariak osatutako Idazkaritza Iraunkorrek igorriko du.

Ebazpena kandidatek aurkeztutako nahitaezko dokumentuen ex ante ebaluazioan oinarritzen da. Ebaluazio hori talde ebaluatzaile batek egingo du, UNICEF Espainiako Batzordearen barruko langileek edota haurren eskubideetan aditu ezagunek osatuak. Programako Idazkaritza Iraunkorrek zainduko du talde ebaluatzaile horren jarduna egokia, profesionala, objektiboa eta inpartziala dela.

Kandidaturen ebaluazio-sistema Deialdi honetako baldintzei erantzuten dien ebaluazio-eredu batez dago osatuta. Eredu horretan, ebaluatzaile bakoitzak objektiboki adierazten du bere balorazioa Deialdian aurkeztu beharreko nahitaezko dokumentazioa irakurri ondoren (Formularioa, Memoria, Haurren Plana eta Diagnostikoa). Hona hemen ebaluaziorako irizpideak:

A. Haurren eta Nerabeen aldeko Politikei eta Ekintzei buruzko balorazio-irizpideak:

HEHri buruzko sentsibilizazio-ekintzak gauzatu, planifikatu eta koordinatzen dira, baita haurren eta nerabeen eskubideei eta egoerari buruzko sentsibilizazio-ekintzak ere.

Haurrei eta nerabeei zuzendutako **hezkuntza eta kultur ekintzak** gauzatu eta planifikatzen dira.

Haurrei eta nerabeei zuzendutako **aisia eta denbora libreko ekintzak** gauzatu eta planifikatzen dira.

Haurren aurkako **indarkeria** eta berdinen arteko indarkeria erroten eratzeko prebentzio eta esku-hartze ekintzak gauzatu eta planifikatzen dira hezkuntzaren eremuan.

Nerabezaroan **ohitura kaltegarriak prebenitzeko** kanpainak eta ekintzak gauzatu eta planifikatzen dira, baita Hezkuntza Afektibo Sexualaren eremuan ere.

Haur eta nerabe **kalteberenei** zuzendutako ekintzak gauzatu eta planifikatzen dira ondokoen aurrean: pobrezia, tratatu txarrak, abusu sexuala, alkoholismoa eta droga-mendekotasuna, malnutrizioa, gaixotasunak, istripuak, absentismoa eta eskola-porrota eta abar.

Kalteberatasun-egoeren aurrean, haurrak eta nerabeak babesteko **prebentzio eta laguntza psikosozialerako** baliabideak dituzte.

Haur eta nerabe kalteberenei zuzendutako zerbitzuen **estaldura** mailari buruzko datuak dituzte.

Haur eta nerabe **kalteberenek** zerbitzuen eta jardueren **informazioa eta sarbidea** dituztela bermatzeko neurriak argi eta garbi adierazi edota zehazten dira.

² Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioa, Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioa, IUNDIA eta UNICEF Espainiako Batzordea.

Desgaitasuna duten haur eta nerabeentzako ekintzak ikuspegi inklusibo batez gauzatu eta planifikatzen dira.

Haurren ongizatea hobetzeko **hirigintzari eta ingurumenari** lotutako ekintzak gauzatu eta planifikatzen dira.

Hezkuntzaren eremuan **hondakinen kudeaketari** buruzko ekintzak eta kanpainak burutzen dira, haurrei eta nerabeei zuzenduak.

Haurren Tokiko Planak **bizi-zikloen** arabera (lehen haurtzaroa, haurtzaroa, nerabezaroa) bereizitako politikak barnean hartzen ditu, haurrei eta nerabeei zuzenduak.

Haurren Tokiko Planak zenbait **politika** barnean hartzen ditu, haurren eta nerabeen **oinarrizko premia eta eskubide** guztiei erantzuten zaiela justifikatzen dutenak, haurren ongizate integralari begira eta genero- eta ekitate-ikuspegi batekin.

Diagnostikoa eta jardueren eta xedeen plangintza lantzean haurren eta nerabeen **premiak eta interesak bereizita** kontuan hartzen dira, eta gizartearen esleitzen zaizkien rol desberdinen eztabaidaguneak sortzen dira.

B. Haurren eta nerabeen partaidetza aktiboari buruzko balorazio-irizpideak:

Herritarren partaidetzarako haur eta nerabeentzako guneak sustatzen dira (Batzordeak, Foroak, Entzunaldiak eta abar). Nerabeen/haurren partaidetza-organoak eratzeko informazioa hedatzen dela bermatzen da edota xede horretarako baliabideak bideratzen dira.

Haurren organo dinamiko bat dago, kontsulta-organo gisa diharduena. Ordezkariek adinaren eta sexuaren arabera banatuta daudela baloratuko da. Talde kalteberen ordezkariek daudela baloratuko da. Bertako kideen hautaketa-prozesua baloratuko da.

Haurren eta nerabeen **proposamen-kanalak** eta haien ekintzak babesten dira. Tokiko Gobernuaren aldetik haurrek eta nerabeek egindako proposamenen itzulera-mekanismoak daudela eta proposamen horiek kontuan hartzen direla argi eta garbi adierazten da.

Haurrek eta nerabeek haiei zuzendutako ekintzak **gauzatzean edota diseinatzean parte hartzen dutela** argi eta garbi adierazten da, baita **diagnostikoa, plangintza eta ebaluazioa** lantzean ere.

Haurrei eta nerabeei zuzendutako **hedabideak** formatu atseginarekin.

C. Tokiko Aliantzei buruzko balorazio-irizpideak:

Haurren eta nerabeen eskubideei eta ongizateari lotutako betebeharren titular diren aldetik **Tokiko Gobernuak eta bestelako Administrazio Publikoak** elkarrekin egiten dute lan haien premiei erantzuteko.

Tokiko Gobernuen eskumenetatik eta baliabideetatik harago beste eragile batzuk mobilizatzeko gaitasuna dute, dagozkien **betebeharren titular diren aldetik lan integratua** lortzera begira.

Elkarrekin egiten dute lan **gizarte zibileko erakundeekin** haurrek eta nerabeek gizartean parte hartzeko ekintzetarako.

Lan egituratua egiten dute ikastetxeekin, sentsibilizazio, prebentzio... ekintzetarako.

Planean biltzen diren **politiketan/ekintzetan** Zinegotzigo, Administrazio Publiko eta sail desberdinek parte hartzen dute, dagozkien baliabideak eta eskumenak aplikatuz.

Udalerrien edo herrien **sareetako** kide dira, haurrekin zerikusia duten sareetakoak, alegia.

D. Tokiko Gobernuaren Ahalmenei buruzko balorazio-irizpideak:

Barne Koordinazio Organo bat dago, Zinegotzigoen, Sailen arteko lanak egituratzea ahalbidetzen duena.

Zinegotzigoek Haurren Tokiko Planean duten partaidetza-maila baloratuko da, baita partaidetza horren maiztasuna eta kalitatea ere Plana egituratzean.

Udalerririk **zinegotzigo espezifiko bat du edota haurren arduradun bat**, zailtasunak dituzten haurrei eta nerabeei arreta ematen diena eta horretarako eta jarduera espezifikoetarako aurrekontu bat duena.

Planean bildutako **politiketan/ekintzetan** Zinegotzigo eta sail desberdinek parte hartzen dute, dagozkien baliabideak eta eskumenak aplikatuz.

Udal langileek haurren eta nerabeen arretarako eta haien eskubideen sentsibilizaziorako **prestakuntza-jardueretan** parte hartzen dute, baita HLH Programari, HEHri eta haurren eskubideen ikuspegiarekin zerikusia duten beste tematika batzuei lotutako prestakuntza-jardueretan ere.

Komunikazio-kanal bat dago herritarren (haurrak eta nerabeak barne) eta Tokiko Gobernuaren artean, eta bertan trukutzen dituzte iritziak, egiten dituzte proposamenak, salaketak (web orria, posta elektronikoa, foroa, web iragarki-aula eta postontzi fisiko bat). Partaidetzarako bide bat sustatzen duten halako tresnak erabiltzen direla baloratuko da.

Informazioa zentralizatzen duen instantzia bat dago, haurrei zuzendutako jardueri buruzkoa, eta eragile sozialei, ikastetxeei, IGEei eta abarri sistematikoki helarazten zaiena.

Barne-koherentzia dago landutako **dokumentuen artean** (Memoria, Haurren Plana eta Diagnostikoa) baita partaidetzazko izaera ere haien lanketan.

Memoria: Bere egituran eta edukian bat datoz proposatutako xedeak, aurrekontua eta lortutakoaren analisi eta baloraziorako gaitasuna.

Errealitatearen Diagnostikoa: Haurren eta nerabeen egoera, egon daitezkeen eskubide-urraketak eta haiei arreta emateko egituratu daitezkeen baliabideak ezagutzeko aukera emango duena. Sexuaren eta talde kalteberenen arabera banatutako datuak aurkezten direla baloratuko da.

Haurren Plana: Plana HEHn oinarrituta dago eta xede argiak finkatzen ditu, udal plangintzari lotuta eta adierazleekin edo etengabeko berrikuspen-mekanismoekin, eta aurrekontuaren aurreikuspena ere biltzen da.

Dokumentuen lanketak **partaidetzazko izaera** du.

Haurren eta nerabeen egoeraren arriskuen analisisa aurkezten da eta bertan argi adierazten dira arreta behar duten egoera kritikoak eta horretarako hartzen diren neurriak.

Haurren eta Nerabeen Tokiko Planera bideratutako **aurrekontuan** udalerriak hartutako konpromisoa. Ematen den xehetasun-maila eta udal aurrekontu globalarekin duen erlazioa baloratuko dira.

Ikasteko gaitasunaren ebidentziak aurkezten dira, politikak gauzatu edota ebaluatzetik abiatuta.

Haurren eta nerabeen aldeko ekintzen **monitoretza edota ebaluazio-sistema** bat dago. Jardueretako asistentzia/partaidetza-mailari (estaldura) buruzko datuak aurkezten direla baloratuko da.

3.5. Babes-klausula

Aintzatespen zigilua Tokiko Gobernuari kendu ahal izango zaio baldin eta ebidentzia objektiboren bat badago, globalki kontuan hartuta, haurren gaietan bere jarduerapolitika argi eta garbi eta behin eta berrito kontraesanean dagoela Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenarekin, Zigilua jasotzea berekin ekarri zuen Haurren eta Nerabeen Tokiko Plana nabarmen eta justifikatu gabe betetzen ez dela, edo UNICEF Espainiako Batzordearekin sinatutako hitzarmenarekin bat ez datorrela. Babes-klausula hau UNICEF Espainiako Batzordearen eta Tokiko Gobernuaren artean sinatutako hitzarmenaren klausula gisa agertuko da adierazita.

3.6. Deialdira aurkeztu beharreko dokumentuen Check List-a


FASEAK (datak)	Nahitaez aurkeztu beharreko dokumentazioa	Check
Interes Adierazpenaren fasea (18.01.31ra arte)	Erregistro-formularioa deialdian (online plataforma), Tokiko Gobernuari eta prozesu horretarako kontaktuari buruzko oinarritzko datuekin.	☐
	Interes Adierazpena , deialdi honetan aurkeztu beharrekoa, alkateak sinatua.	☐
	Osoko Bilkuran onetsitako Mozioa , Udaleko Idazkariaren sinadurarekin ziurtatua, 2017. urtearen aurrekoa izango ez dena (edo, horren ezean: alderdi politikoek sinatutako akordioa, 18.06.15aren aurretik Osoko Bilkuran berrestekoa eta berretsi ondoren UNICEFi berehala bidali beharrekoa, edota Gobernu Batzordeak sinatutako dokumentua).	☐
Dokumentu nagusien(*) aurkezpenaren fasea (18.04.30era arte)	Kandidaturaren formulario-laburpen osatua . Formularioan ondokoei buruzko informazioa bilduko da: a. Haurren Partaidetza Organoa b. Barne Koordinazio Mekanismoa	☐
	Haurren eta Nerabeen aldeko Jardueren Memoria	☐
	Haurren eta Nerabeen Diagnostikoa udalerrian	☐
	Haurren eta Nerabeen Tokiko Plana	☐
Gardentasuna (18.10.01era arte)	Tokiko herritarrekiko gardentasun-ariketa bat egin beharko da eta horretarako haien eskueran jarriko dira Tokiko Gobernuaren web orrian Memoria, Diagnostikoa eta Haurren eta Nerabeen Tokiko Plana.	☐

* Dokumentu nagusiei buruzko ohar orokorrak:

Dokumentuaren pisuak ezin du izan 10 MB-tik gorakoa. Ahal bada, ez kargatu dokumentuak irudi gehiegirekin edo bereizmen handiko irudiekin.

Dokumentu nagusi bakoitza online plataformaren bidez entregatuko da, eta eranskinen aurkibide bat gehitu beharko zaio. Eranskinak eskatzailearen eskuetan egongo dira, eta eskuragarri egongo dira UNICEF Espainiako Batzordeak eskatu ahal izango baditu egiaztapenerako edo haien berri gehiago jakiteko.

4. HLH Aintzatespen Zigilua 2017-2018 Deialdia – Berritzea



HLH Aintzatespen Zigilua 2017-2018 Deialdia – Berritzea

UNICEF Espainiako Batzordeak Tokiko Gobernuari ematen dien **HLH Aintzatespen Zigilua** berritzea lortzeko, eskaera bat aurkeztu beharko da HLH Programaren Deialdian —bi urtero egiten da—, eta bertan dagokion atalean adierazitako irizpideak betetzen direla baloratuko da. Deialdi honetan, 2014an aintzatespena lortu zuten Tokiko Gobernu guztiek berritu ahal izango dute Zigilua. Tokiko Gobernuak deialdian parte hartzen ez badute, GALDU egingo da dagokien Zigiluaren indarraldia. Kasu horretan, 2020ko Deialdian lortu ahal izango dute berriro zigilua.

HLH Zigilua berritzeko aukera emanez gero, **lau urteko indarraldia** izango du, eta Tokiko Gobernuak behartuta egongo da bitarteko txosten bat aurkeztera Zigilua lortu eta handik bi urtera, baita HLH Programan aktiboki parte hartzeraren ere.

Lau urteen buruan, Tokiko Gobernuak Zigilua **berritzeko aukera** izango du, beste lau urteko aldirako; eta horrela elkarren segidan.

HLH Zigiluaz gainera, UNICEF Espainiako Batzordeak haurren eta nerabeen alde Tokiko Gobernuak garatutako tokiko politiken bikaintasun **aipamen bereziak** eman ahal izango ditu eskaera berritzen duten udalerrientzat, betiere euren udalerrian haurren eta gazteen egoera aldatzea lortu dutela, haurren Planaren xedeak eta adierazleak bete dituztela edota politika eraginkorrak garatu eta aliantza emankorrak sortu dituztela erakutsiz gero.

4.1. Haurren Lagun diren Hiriak Aintzatespena Berritzea

HLH Zigilua berriro ahal izateko, nahitaezkoa da HLH Programaren ezaugarri diren irizpideak eta prozedurak betetzen direla frogatzea.

HLH Zigiluak egiaztatu egiten du udal batek edo Tokiko Gobernu batek haurren eta nerabeen aldeko politikak eta ekintzak diseinatu eta garatu dituenean kontuan hartu dituela ondoko irizpideak eta prozedurak:

A. Haurren eta nerabeen alde gauzatutako Politikak eta Ekintzak:

- Eskubideen ikuspegi bat dute Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenari jarraituz.
- Bat datoz Haurren eta Nerabeen Tokiko Planarekin.
- Partaidetza-prozesu baten bidez egindako diagnostiko batean oinarrituta daude, non haurrak diren kontsultatutako taldeetako bat (eta eguneratua izan dela).
- Partaidetzaz diseinatu izan dira, bai Tokiko Gobernuen barruko eragileen bai gizarte-erakundeen, IGEen edo bestelakoen partaidetzarekin, eta betiere haurrak funtsezko eragiletzat hartuta estrategia diseinatzeko prozesuan.
- Haurren eta nerabeen premiei eta eskubideei erantzungo dieten emaitzak lortzera bideratuta daude, Tokiko Gobernuen eskumenetatik eta baliabideetatik harago, betiere lan integratu bat lortzeko dagozkien betebeharren titular diren aldetik.


B. Udal bizitza publikoan Haurren eta nerabeen partaidetza aktiborako kanalak ezartzea eta bultzatzea, ondoko bitartez:

- Ahotsa duten herritarrak diren aldetik, haurren eta nerabeen partaidetza bultzatzea, informatuak eta entzunak izateko eskubidearekin eta haien oharrak eta proposamenak gobernatzaileek eta komunitateko erakunde desberdinek kontuan hartzeko eskubidearekin.
- Plana burutu aurreko aldian, haurren partaidetza-organoaren dinamismoa egiaztatu behar da baita, besteren artean, diagnostikoa lantzen, ekintzak diseinatu eta burutzen eta haurrek eta nerabeek sortutako proposamenak bideratzen parte hartzen dutela ere.



C. Tokiko Aliantzak sortzea, haurren eta nerabeen eskubideen eta ongizatearen aldeko lan egituratu bat lortzeko:

- Tokiko Gobernuen, Administrazio Publikoen eta gizarte-erakunde desberdinen artekoa (alderdi politikoak, elkarteak, fundazioak, sindikatuak, ikastetxeak eta unibertsitateak, enpresak eta abar).
- Beste eragile batzuk, beste maila batzuetako erakunde publikoetakoak nahiz pribatuetoakoak mobilizatzeko ahalmena, elkarrekin batera dagokien jardute-eremu geografikoan baliabideak haurrentzat bideratzeko.
- Oso positiboki baloratuko dira administrazio publikoko mailen arteko koordinazio-esperientzia arrakastatsuak baita **kanpo-koordinazio mekanismoak** sortzea ere (ardatza, Haurren Udal Mahaia).



D. Tokiko Gobernuaren ahalmenak, beren tamainaren, baliabideen eta eskumenen arabera, ondokoetarako:

- Komunikaziorako guneak eta informazioa hedatzeko kanalak sortu eta sustatzea.
- Haurren eta Nerabeen aurreko Tokiko Plana burutzean zinegotzigoen artean egokiro jardun izatea **barne-koordinazio mekanismoari** dagokionez.
- Baliabide espezifikoak (langileak, barne-egitura, aurrekontua) haurrei eta nerabeei zuzenduak.
- Haurren eta Nerabeen Tokiko Plan bat diseinatu eta burutzea, HEHn inspiratua eta partaidetzazko diagnostikoan oinarritua, baita ebaluazio- eta segimendu-mekanismoak barnean hartzea ere.
- Jardueren Memoria bat lantzea, burututako ekintzak baloratu eta kritikatzeko gaitasuna islatuko duena, eta betiere Planarekin bat etorritik.
- Aliantzak finkatzea eta bai beste maila batzuetako erakunde publikoetako bai erakunde pribatuetoako eragileak mobilizatzea, dagokien jardute-eremu geografikoan haurrentzat baliabideak bideratzeko.

4.2. HLH Zigilua berritzeko baldintzak

Zigilua 2014an jaso izan duten udalerriek Berritu ahal izango dute zigilua, aurreko Deialdiaren Aintzatespenean aurkeztu izan duten **Haurren eta Nerabeen Tokiko Planaren aurrerapenaren balorazio-txosten bat edo ebaluazio bat** egin eta aurkezten dutenek.

Planaren barnean hartutako ekintza guztien ebaluazio bat edo balorazio-txosten bat aurkeztu behar da, baita aurreikusitako xedeen lorpen-maila ere. Zigilua berritu ahal izateko, Planaren barne hartu diren xedeak beteta izan behar dituzte, politika eraginkorrak garatuta eta aliantza emankorrak eratuta.

Haurren eta Nerabeen aurreko Tokiko Plana oraindik indarrean badago ere, nahitaezkoa izango da burututako aldiaren balorazio-txostena edo ebaluazioa aurkeztea. Kasu horretan, indarrean dagoen Plan bera aurkeztu ahal izango da, baina xedeak, jarduerak, baliabideak eta abar eguneratuz, egoeraren Diagnostiko berriaren arabera.

Udalerrien eta haurren eta nerabeen errealitateen testuinguru dinamikoetan, eta partaidetzazko plangintzak sustatzen direla kontuan hartuta, derrigorrezkoa da Planak berrikustea hobetu daitezen. Horretarako, funtsezkoa da haurren eta nerabeen egoeraren Diagnostikoa (partaidetzaz) eguneratzea, ahalbidetu egingo baitu abiaburutzat hartutako problematika berriro osatzea eta jarduteko estrategia berriro pentsatzea.

Era berean, garrantzizkoak dira segimendu eta ebaluaziorako sistemak, udal kudeaketaren inguruko erabakien bidez aldaketa horiek oinarritzeko ebidentziak eskaintzen dituzten neurrian.

UNICEF Espainiako Batzordearen aldetik txosten bat jaso izan bada 2014an aurkeztutako Haurren eta Nerabeen Tokiko Planaren bitarteko txostenari buruzko oharrekin eta gomendioekin, haietako zeintzuk gauzatu ahal izan diren, zer zailtasun aurkitu izan dituzten eta zer ikasi duten jakinarazi beharko da.

Erakunde eskatzaileek Zigilua **Berritzeko** ondoko **baldintzak** bete beharko dituzte:

- Tokiko Gobernu bat izatea (Udala, Mankomunitatea).
- **2014ko deialdian zigilua lortu** izana.
- Aurreko Plana **gauzatu eta ebaluatu** izana (aurreko Plana oraindik indarrean badago ere, burututako aldiari dagokion **balorazio-txosten** bat edo **ebaluazio** bat aurkeztu beharko da).
- **Diagnostikoa eguneratuta** izatea baita deialdi honetara aurkeztu aurreko bi urteetan burututako ekintzak ere. Horrek esan nahi du Diagnostiko bat eta 2014an aurkeztutako Haurren Tokiko Planaren ebaluazio bat aurkeztu behar direla (edo haurren eta nerabeen aldeko **Jardueren Memoria** bat).
- **Haurren eta Nerabeen Tokiko Plana Udal Osoko Bilkuran onetsi beharko da (Nahitaezkoa).** UNICEF Espainiako Batzordeari bidali behar zaio Haurren eta Nerabeen Tokiko Planaren mozioa, Osoko Bilkuran onetsia (gehienezko epea 2016/10/01).
- **Haurren Organoak** jardunean egon behar du, partaidetza-organo erreala den aldetik eta udalerriaren barruan haurrei eta nerabeei dagozkien gaiei buruzko erabakiak hartzeko kontsultarako funtsezko eragile den aldetik. Organo honek proposatutako eta Tokiko Gobernuak burututako ekintzen ebidentzia erakutsi behar da.
- Haurren eta nerabeen **Barne Koordinazio Mekanismo** bat (Mahaia edo beste batzuk) dagoela frogatzea, bere dinamismoaren ebidentziekin.
- Kanpo Koordinazio Mahai bat egotea baloratuko da (ez da baldintza baztertzaileria), aktiboa eta Haurren Tokiko Planaren diseinuaren, inplementazioaren, segimenduaren eta ebaluazioaren prozesuan parte hartzen duena.
- Tokiko Gobernuaren web orrian herritarrek kontsultatzeko eskuragarri jarri izana deialdian aurkeztutako dokumentuak: Memoria/Ebaluazioa, Diagnostikoa eta indarrean dagoen Tokiko Plana (gehienezko epea 2018/06/15). **(Nahitaezkoa).**
- Deialdiaren Oinarrietan eskatzen diren dokumentuak ezarritako epeetan osatzeko eta aurkezteko jarrera eta baliabideak izatea.

4.3. Bikaintasun-aipamena eskatzeko baldintzak


Aipamen hori zigilua berritzen den kasuan bakarrik eska daiteke eta objektiboki justifikatuta eta ebidentzian oinarritutako egon behar du. Bikaintasun-aipamena ondoko kasuotan eska daiteke:

- Aurreko **plana gauzatu** izateari esker errealitate bat aldatu ahal izan da –non haurren eta nerabeen eskubideak urratu ahal izan ziren– edota nabarmen lagundu da errealitatearen diagnostikotik abiatuta (pobrezia edota eskusioa, inklusioa eta abar) udalerriko haurren ongizatea hobetzen.
- **Metodologia / ikuspegi berritzaileak** eta eraginkorrak burutu dira.
- Burutu diren **kudeaketa-, koordinazio- edo komunikazio-moduak** haurren partaidetza aktibotik abiatuta eraman dira aurrera, baita partaidetza horri erantzunez eta bermatuz ere (kontsulta-, diseinu- eta kudeaketa-mailan), eta eraginkorrak izan dira.
- **Udal Plangintzan, Agenda 2030** edo beste batzuk, esaterako, **Habitat III Agenda** (hiri-plangintza haurren partaidetzarekin) barneratu dira. Aurreko edozein egoeratarako beharrezkoa izango da neurketarako monitoretza-sistema bat eratu izana ere bai. Inplementazio horrek Haurren Eskubideen ikuspegiarekin egindakoa izan behar du.

Lortutako inpaktuen ebidentziak erakutsi beharko dira ebaluazio-txostenak edo balorazio-irizpideetan oinarritutako azterlanak zehaztasun akademiko aurkeztuz, era horretan aurkeztutako informazioa berresteko aukera emango dutenak eta aipamenaren eskaera justifikatuko dutenak.

4.4. Epeak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

4.4.1. HLH Zigilua 2017-2018 Deialdia – Berritzea faseak eta epeak



4.4.2. Interes Adierazpena

Tokiko Gobernuak UNICEF Espainiako Batzordeari Deialdian parte hartzeko **Interes Adierazpena** bidaltzeko gehienezko epea Deialdiaren Oinarri hauek atera eta argitaratzen direnetik 2018ko urtarilaren 31ra arte izango da.

Interes Adierazpena osatzeko behar dira:

Interes adierazpena

2018/01/31ra
arte

Alkateak sinatutako interes-adierazpenaren gutuna: Udaleko arduraduna gutun bidez zuzenduko zaio Haurren Lagun diren Hiriak Programako Idazkaritza Teknikoari Aintzatespena Berritzeko Deialdian parte hartzeko eskaera eginez.

Online formularioa: Programaren web orrian inskribatzeko (online plataforma), Tokiko Gobernuari eta prozesu horretarako kontaktuari buruzko oinarrizko datuak adieraziz.

2018/06/15era
arte

Onetsitako mozioa: Eskaera-gutunari Osoko Bilkuran onetsitako mozioa erantsiko zaio, Udaleko Idazkariak ziurtatuta, eta 2017. urtearen aurrekoa izango ez dena (edo, horren ezean: alderdi politikoek sinatutako akordioa –Osoko Bilkuran 18.06.15aren aurretik berrestekoa eta berretsi ondoren UNICEFi berehala bidali beharrekoa– edota Gobernu Batzordeak igorritako ziurtagiria).

Mozioak –lehendabizi aurkeztu beharreko dokumentuak– Osoko Bilkurari proposatuko dio Haurren Lagun diren Hiriak Programak ematen duen Aintzatespen (Berritzea) deialdian parte hartzeko UNICEF Espainiako Batzordeari eskaera egitea, UNICEF Espainiako Batzordearekin batera lankidetzan aritzeko konpromisoa hartuz, udalerrian Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena aplikatzen dela bermatzeko.

4.4.3. Kandidaturen aurkezpena (dokumentuak)

Derrigorrezko dokumentazioa **2018ko apirilaren 30era** arte bidali ahal izango zaio UNICEF Espainiako Batzordeari. Dokumentu nagusiak bakarrik bidaliko dira, eta ebaluazio-prozesuan zehar UNICEF Espainiako Batzordeak eskatu ahal izango dituen eranskinen zerrenda.

Ondokoak aurkeztuz bidaliko dira kandidaturak:

Kandidaturaren dokumentuak

2018/04/30era
arte

Kandidaturaren **formulario-laburpena**, web plataforman (online) bete.

Eskaeraren formulario-laburpenean ezarritako jarraibideak betez, Balorazio-Txostenaren edo Ebaluazioaren, Diagnostikoaren eta Haurren eta Nerabeen Tokiko Planaren funtsezko elementuak adieraziko dira.

Formularioan, bestalde, hauei buruzko informazioa gehituko da:

a. Haurren Partaidetza Organoa

Haurren partaidetza-organoari dagokionez, argi adierazi behar da:

- Bere jarduna, partaidetza-organo erreala den aldetik, udalerriaren barruan batik bat eurei dagozkien gaitan erabakiak hartzeko funtsezko kontsulta-eragile denez gero.
- Organo honek proposatutako ekintzak eta Tokiko Gobernuak burutuak.

b. Barne Koordinazio Mekanismoa

Barne-koordinazio mekanismoari dagokionez (mahaia edo beste batzuk), argi adierazi behar da:

- Bere jarduna Zinegotzigo eta Sail desberdinen arteko koordinazio-organo den aldetik, haurren eta nerabeen politikei eta ekintzei zeharka heltzeko.

Gogorarazi behar da Berritzeko deialdirako nahitaezko baldintza dela Haurren Partaidetza Organoa sortuta egotea eta egokiro jardutea, eta Barne Koordinazio Mahai bat eratuta egotea haur eta nerabeentzako Tokiko Gobernuko Zinegotzigoen eta Sailen artean.

c. Kanpo Koordinazio Mekanismoa

Kanpo-koordinazio mekanismoari dagokionez (mahaia edo beste batzuk), instantzia aktiboa izatea eta Haurren Tokiko Planaren diseinuaren, inplementazioaren, segimenduaren eta ebaluazioaren prozesuan parte hartzea baloratuko da. (Ez da baldintza baztertzaila).

Aurreko Planaren Balorazio Txostena edo Ebaluazioa (Haurren eta Nerabeen aldeko Jarduera Memoria bat onartu ahal izango da, betiere egindakoaren balorazio-analisi bat gehitzen bazaio).

Aurreko Plana burutzean aplikatutako baliabideak eta aurrera eramandako ekintzak adierazi behar dira, baita xedeen eta aurreikusitako emaitzen lorpen-maila ere.

Haurren eta Nerabeen **Diagnostikoa** udalerrian

Txosten eguneratu bat aurkeztu beharko da, haurren eta nerabeen errealitatea udalerriaren testuinguruan deskribatu eta kuantifikatuko duena, 0-8 urte bitarteko populazioan enfasi berezia jartzen duten datu sozioekonomikoak emanez.

Plangintzari (berria edo berrikusia) bide emango dion Diagnostikoa egiteko data ez da 2015. urtearen aurrekoa izango, **2015. urtetik aurrerakoa** baizik.

Haurren eta Nerabeen Tokiko Plana

Haurren eta Nerabeen Tokiko Planak haien premiei eta eskubideei erantzun behar die, Tokiko Gobernuak dituzten eskumenen, baliabideen eta lehentasunen esparruan, eta dagozkien eskumenetatik harago jarduteko aukera emango dieten aliantzak sortzeko duten ahalmenean oinarrituta, dagozkien betebeharren titular diren aldetik lan integratu bat lortzeko.

Tokiko Gobernuak, haurren eskubideen sustapena, hornikuntza eta babesa bermatzearren, abian jarriko dituen helburuak, xedeak, adierazleak, estrategiak, ekintzak, baliabideak, segimendu-sistemak, inplementazio eta ebaluazioa, eta aurrekontua garatuko ditu Plan horrek.

Aurkeztutako Planak aintzatespenaren aldirako (2019an hasten dena) indarrean egon beharko du. Aurreko Plana oraindik indarrean badago, berau aurkez daiteke.

Jardunaren muga lau urtekoa izatea gomendatzen da, HLH Ziguaren indarraldiarekin bat etorriz.

Udal Osoko Bilkuraren aldetik Planaren **onespenaren ziurtagiria** aurkeztu beharko da. Ziurtagiri hori gehienez 2018ko urriaren 31ra arte aurkeztu ahal izango da.

*** Dokumentuei buruzko Ohar Orokorrak:**

Dokumentuaren pisuak ezin du izan 10 MB-tik gorakoa. Ahal bada, ez kargatu dokumentuak irudi gehiegirekin edo bereizmen handiko irudiekin.

Dokumentu nagusi bakoitza online plataformaren bidez entregatuko da, eta eranskinen aurkibide bat gehitu beharko zaio. Eranskinak eskatzailearen eskuetan egongo dira, eta eskuragarri egongo dira UNICEF Espainiako Batzordeak eskatu ahal izango baditu egiaztapenerako edo haien berri gehiago jakiteko.

Oinarrien Eranskinetan dokumentu horiek lantzeko Gida bat aurkezten da.

4.4.4. Zuzentzea

UNICEF Espainiako Batzordeak, eskaera jaso eta gero, dokumentazio edo informazio gehigarria edo falta dena eskatu ahal izango du, eta akatsak zuzentzeko epea jakinaraziko dio Tokiko Gobernuari.

Aldez aurretik bidali den dokumentazioan bakarrik onartuko da akatsen zuzenketa, eta betiere UNICEF Espainiako Batzordeak espresuki eskatuta.

UNICEF Espainiako Batzordeak komunikazio elektronikoak erabiliko ditu akatsak zuzentzeko eskaera horiek helarazteko.

4.4.5. Gardentasuna

Tokiko Gobernuak beren web orrian argitaratu behar dituzte iraunkorki Deialdira aurkeztutako ondoko dokumentuak:

- Aurreko Planaren balorazio-txostena edo ebaluazioa (hala badagokio, Haurren eta Nerabeen aldeko Jardueren Memoria)
- Haurren eta Nerabeen Egoeraren Diagnostikoa udalerrian
- Haurren eta Nerabeen Tokiko Plana

Dokumentuek 2018ko ekainaren 15etik aurrera gutxienez egon behar dute eskuragarri herritarrek kontsultatu ditzaten, eta gardentasun eta kontu-emate printzipioei jarraitu behar diete.

4.4.6. Bisitak Udalerrietara

Ebaluazio-prozesuaren osagarri diren bisitak programatuko dira udalerriekin koordinazioan, 2018ko apiriletik hasita eta 2018ko urrian Deialdia ebazten den arte.

Kandidatu guztien artetik, UNICEF Espainiako Batzordeak udalerrri-talde bat hautatuko du, ebaluazioko bisita horien xede izango direnek osatua. Hautaketa hori objektiboki egingo da ebaluazio-sistemaren barruan, argibideak ematea edo informazioa zabaltzea beharrezkoa denean, edo positiboki balioesten denean aurkeztutako dokumentazioa kandidaturen errealitatearen eremuari buruzko ezagutzarekin osatzea.

Bisita horiek UNICEF Batzorde autonomikoarekin, Tokiko Gobernuarekin eta Programako Idazkaritza Iraunkorra ordezkatzen duen ebaluazio-teknikariarekin koordinazioan egingo dira beti.

UNICEF Espainiako Batzordeko ebaluatzailearen lekualdaketa- eta egonaldi-gastuak Tokiko Gobernuak ordainduko ditu.

4.4.7. Planaren Onespen Ziurtagiria

Aintzatespena Berritzeko nahitaezkoa da Udal Osoko Bilkurak Haurren eta Nerabeen Tokiko Plana onetsi duela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztea.

Dokumentazio hori aurkezteko gehieneko epea 2018ko urriaren 1a izango da. Ziurtagiri hori aurkezten ez bada, atzera botako da eskaera.

4.4.8. Emaitzaren Jakinarazpena

Deialdi honen emaitza, eta beraz, Aintzatespen Ziguilua, 2018ko urriaren 15etik 31ra bitartean ezagutuko dute kandidatuek.

4.4.9. Aintzatespena Emateko Ekitaldia

HLH Programako Idazkaritza Iraunkorrak behin Deialdia ebatzi ondoren, eta emaitza jakinarazten denean, berritutako aintzatespenak emateko ekitaldi bat egingo da 2018ko azaroan zehar. Behar adina denborarekin emango da ezagutzera aintzatetsitako udalerriei berritutako Ziguilua emateko ekitaldiari harrera egingo dion hiria.

Ekitaldietara bertaratzeak sorrarazitako gastuak saritutako Tokiko Gobernuak ordainduko ditu.

4.4.10. Aintzatespenaren ondoko Kudeaketa

Aintzatespen Ziguilua Berritzeak Tokiko Gobernuaren eta UNICEF Espainiako Batzordearen artean lankidetzako **hitzarmen bat sinatzea** dakar berekin, eta lau urtekoa izango da bere iraunaldia.

HLH udalerriak, aintzatespena berritu gabe badu edo berritzeko beharrik ez badu, gutxienez **plaka** bat jarriko du Haurren Hiri Lagun gisa identifikatuko duena, eta Haurren Hiri Lagunen logotipoa ere gehituko du hurrei eta nerabeei zuzendutako Tokiko Gobernuaren jardueretan. Hiriko seinale horien diseinua UNICEF Espainiako Batzordeak emango du, bere ordezkaritza autonomikoen bitartez. Diseinu horien tamaina doitu ahal izango da, baina ezin izango da inoiz aldatu dagozkien beste edozein elementu.

HLH Ziguilu Berritua lortzen den unetik, Tokiko Gobernuak deialdira aurkeztutako **Haurren eta Nerabeen Tokiko Plana gauzatzeko konpromisoa hartzen du**, baita urtero aurrekontu-partidak plan horretan inbertitzera bideratzeko ere.

Era berean, udalerriak Planaren **segimendu-sistema bat hartzeko konpromisoa hartzen du**, bere inplementazioaren aurrerapenak ezagutzea ahalbidetzen duena, esperotako emaitzak ematen ari ote den ikusteko.

Planaren ezarpenaren erdian (HLH Aintzatespen Ziguilu Berrituaren bi urteko indarraldian), udalerriak **Bitarteko Txosten** bat aurkeztu beharko dio UNICEF Espainiako Batzordeari, lortu dituen aurrerapenak azalduz eta deialdian aurkeztutako Diagnostikoa berrikusiz.

Bitarteko txostena egitean ebaluazio-txostena hartuko da kontuan, UNICEF Espainiako Batzordeak Deialdia ebazten den unean entregatuko duena, eta bertan, haurren tokiko bere politikaren alderdi sendo eta hobekuntza-eremu nagusiak jakinaraziko zaizkio Tokiko Gobernuari. Bitarteko txostena Haurren Tokiko Planaren segimendu-mekanismoetan egongo da oinarrituta, besteren artean. Dokumentazioa sistematizatzeko, formatu espezifiko bat planteatuko du UNICEF Espainiako Batzordeak.

HLH Ziguilua indarraldi osoan zehar, dagokion tokiko herritarrek kontsultatzeko, Tokiko Gobernuaren web orrian eskuragarri egongo dira deialdi honetan aurkeztutako dokumentuak: Ebaluazioa (edo Memoria), Diagnostikoa eta indarrean dagoen Tokiko Plana.

4.5. Ebaluaziorako irizpideak eta prozedurak

HLH aintzatespen Deialdian lehiatzen diren kandidatei buruzko ebazpena HLH Programa sustatzen duten instituzioen³ ordezkariak osatutako Idazkaritza Iraunkorrak igorriko du.

Ebazpena kandidatek aurkeztutako nahitaezko dokumentuen ex ante ebaluazioan oinarritzen da. Ebaluazio hori talde ebaluatzaile batek egingo du, UNICEF Espainiako Batzordearen barruko langileek edota haurren eskubideetan aditu ezagunek osatuak. Programako Idazkaritza Iraunkorrak zainduko du talde ebaluatzaile horren jarduna egokia, profesionala, objektiboa eta inpartziala dela.

Kandidaturen ebaluazio-sistema Deialdi honen baldintzei erantzuten dien ebaluazio-eredu batez dago osatuta. Eredu horretan, ebaluatzaile bakoitzak objektiboki adierazten du bere balorazioa Deialdian aurkeztu beharreko nahitaezko dokumentazioa irakurri ondoren (Formularioa, Memoria, Haurren Plana eta Diagnostikoa). Hona hemen ebaluaziorako irizpideak:

A. Haurren eta Nerabeen aldeko Politikei eta Ekintzei buruzko balorazio-irizpideak:
HEHri buruzko sentsibilizazio-ekintzak egokiro gauzatu dira eta berriro planifikatzen dira, baita haurren eta nerabeen eskubideei eta egoerari buruzko sentsibilizazio-ekintzak ere.
Haurrei eta nerabeei zuzendutako hezkuntza eta kultur ekintzak egokiro gauzatu dira eta berriro planifikatzen dira.
Haurrei eta nerabeei zuzendutako aisia eta denbora libreko ekintzak egokiro burutu dira eta berriro planifikatzen dira.
Haurren aurkako indarkeria eta berdinen arteko indarkeria errotik erazteko prebentzio eta esku-hartze ekintzak hezkuntzaren eremuan egokiro burutu dira eta berriro planifikatzen dira.
Nerabezaroan ohitura kaltegarriak prebenitzeko kanpainak eta ekintzak egokiro burutu dira eta berriro planifikatzen dira, baita Hezkuntza Afektibo Sexualaren eremuan ere.
Haur eta nerabe kalteberenei zuzendutako ekintzak egokiro burutu dira eta berriro planifikatzen dira ondokoan aurrean: pobrezia, abandonatzea, tratu txarrak, abusu sexuala, alkoholismoa eta droga-mendekotasuna, malnutrizioa, gaixotasunak, istripuak, absentismoa eta eskola-porrota eta abar.
Kalteberatasun-egoeren aurrean, haurrak eta nerabeak babesteko prebentzio eta laguntza psikosozialerako baliabide eraginkorrak dituzte.
Haur eta nerabe kalteberenei zuzendutako zerbitzuen estaldura mailari buruzko balorazioa.

³ Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioa, Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioa, IUNDIA eta UNICEF Espainiako Batzordea.

Haur eta nerabe **kalteberenek** zerbitzuen eta jardueren **informazioa eta sarbidea** dituztela bermatzeko neurriak argi eta garbi adierazi edota zehazten dira.

Desgaitasuna duten haur eta nerabeentzako ekintzak ikuspegi inklusibo batez egokiro burutu dira eta berriro planifikatzen dira.

Haurren ongizatea hobetzeko **hirigintzari eta ingurumenari** lotutako ekintzak egokiro gauzatu eta berriro planifikatzen dira.

Hezkuntzaren eremuan **hondakinen kudeaketari** buruzko ekintzak eta kanpainak, haurrei eta nerabeei zuzenduak, egokiro burutu dira eta berriro planifikatzen dira.

Haurren Tokiko Planak **bizi-zikloen** arabera (lehen haurtzarora, haurtzarora, nerabezarora) bereizitako politikak barnean hartzen ditu, haurrei eta nerabeei zuzenduak.

Haurren Tokiko Planak zenbait **politika** barnean hartzen ditu, haurren eta nerabeen **oinarrizko premia eta eskubide** guztiei erantzuten zaiela justifikatzen dutenak, haurren ongizate integralari begira eta genero- eta ekitate-ikuspegi batekin. Politikak oinarritzko premietara eta eskubideetara egokitzen diren mailari buruzko analisi bat egin dela baloratuko da.

Argi ikusten da diagnostikoa eta jardueren eta xedeen plangintza egitean haurren eta nerabeen **premiak eta interesak bereizita** kontuan hartzen direla, eta gizartean esleitzen zaizkien rol desberdinen eztabaidaguneak sortzen direla. Rol tradizionalak eztabaidatzera bideratutako ekintzak eta xedeak egotea baloratuko da, baita partaidetza-prozesuetatik sortutako jardura burutuak ere, haurren eta nerabeen artean bereizitako premiak kontuan hartuta.

B. Haurren eta nerabeen partaidetza aktiboari buruzko balorazio-irizpideak:

Herritarren partaidetzarako haur eta nerabeentzako guneak sustatzen dira (Batzordeak, Foroak, Entzunaldiak eta abar). Nerabeen/haurren partaidetza-organoak eratzeko informazioa hedatzen dela bermatzen da edota xede horretarako baliabideak bideratzen dira. Bideratutako baliabideei buruzko xehetasuneko informazioa aurkeztea baloratuko da, baita sustatutako guneei buruzkoa ere.

Haurren partaidetza-organo dinamiko bat dago, kontsulta-organo gisa diharduena. Ordezkariek adinaren eta sexuaren arabera banatuta daudela baloratuko da. Talde kalteberen ordezkariek daudela baloratuko da. Bertako kideen hautaketa-prozesua baloratuko da. Tokiko Gobernuak organoaren jarduna bermatzeko eskueran jarritako baliabideak eta guneak baloratuko dira, baita haiek hartu duten garrantzia ere.

Haurren eta nerabeen **proposamen-kanalak** eta haien ekintzak babesten dira. Tokiko Gobernuaren aldetik haurrek eta nerabeek egindako proposamenen itzulera-mekanismoak daudela eta proposamen horiek kontuan hartzen direla argi eta garbi adierazten da. Adibide zehatzak aurkeztea baloratuko da, haurren eta nerabeen proposamen-gaitasuna islatuko dutenak, baita Udalerriak entzuteko eta erantzuteko duen gaitasuna ere.

Haurrek eta nerabeek haiei zuzendutako ekintzak **gauzatzean edota diseinatzean parte hartzen dutela** argi eta garbi adierazten da, baita **diagnostikoa, plangintza eta ebaluazioa** lantzean ere. Partaidetza-esperientzia zehatzak baloratuko dira.

Haurrei eta nerabeei zuzendutako **hedabideak** formatu atseginarekin. Haiei dagozkien politikak eta ekintzak hobeto ezagutzeko eta haietan gehiago parte hartzeko haurrei eta nerabeei aukera emango dieten formatuak eta bitartekoak barneratu direla baloratuko da.

C. Tokiko Aliantzei buruzko balorazio-irizpideak:

Haurren eta nerabeen eskubideei eta ongizateari lotutako betebeharren titular diren aldetik **Tokiko Gobernuak eta bestelako Administrazio Publikoak** elkarrekin egiten dute lan haien premiei erantzuteko. Lortutako esperientzia zehatzak baloratuko dira.

Tokiko Gobernuen eskumenetatik eta baliabideetatik harago beste eragile batzuk mobilizatzeko gaitasuna dute, dagozkien **betebeharren titular diren aldetik lan integratu bat** lortzera begira. Lortutako esperientzia zehatzak baloratuko dira.

Elkarrekin egiten dute lan **gizarte zibileko erakundeekin** haurrek eta nerabeek gizartean parte hartzeko ekintzetarako. Lortutako esperientzia zehatzak baloratuko dira.

Lan egituratua egiten dute ikastetxeekin, sentsibilizazio, prebentzio, jardute... ekintzetarako.

Planean biltzen diren **politiketan/ekintzetan** Zinegotzigo, Administrazio Publiko eta sail desberdinek parte hartzen dute, dagozkien baliabideak eta eskumenak aplikatuz. Lortutako esperientzia zehatzak baloratuko dira.

Udalerrien edo herrien **sareetako** kide dira, haurrekin zerikusia duten sareetakoak, alegia.

D. Tokiko Gobernuaren Ahalmenei buruzko balorazio-irizpideak:

Barne Koordinazio Organo bat dago, Zinegotzigoen, Sailen arteko lanak egituratzea ahalbidetzen duena.

Zinegotzigoek Haurren Tokiko Planean duten partaidetza-maila baloratuko da, baita partaidetza horren maiztasuna eta kalitatea ere Planaren egituratzean.

Udalerriak **zinegotzigo espezifiko bat du edota haurren arduradun bat**, zaitasunak dituzten haurrei eta nerabeei arreta ematen diena eta horretarako eta jardura espezifikoetarako aurrekontu bat duena. Haiei arreta emateko edo beste eragile batzuen partaidetza lortzeko aurrekontua gehitu dela baloratuko da.

Planean bildutako **politiketan/ekintzetan** Zinegotzigo eta sail desberdinek parte hartzen dute, dagozkien baliabideak eta eskumenak aplikatuz. Lortutako esperientzia zehatzak baloratuko dira.

Udal langileek haurren eta nerabeen arretarako eta haien eskubideen sentsibilizaziorako **prestakuntza-jardueretan** parte hartzen dute, baita HLH Programari, HEHri eta haurren eskubideen ikuspegiarekin zerikusia duten beste tematika batzuei lotutako prestakuntza-jardueretan ere.

Komunikazio-kanal bat dago herritarren (haurrak eta nerabeak barne) eta Tokiko Gobernuaren artean, eta bertan trukatzeko dituzte iritziak, egiten dituzte proposamenak, salaketak (web orria, posta elektronikoa, foroa, web iragarki-aula eta postontzi fisiko bat). Partaidetzarako bide bat sustatzen duten halako tresnak erabiltzen direla baloratuko da.

Informazioa zentralizatzen duen instantzia bat dago, haurrei zuzendutako jardueri buruzkoa, eta eragile sozialei, ikastetxeei, IGEei eta abarri sistematikoki helarazten zaiena.

Barne-koherentzia dago landutako **dokumentuen artean** (Memoria, Haurren Plana eta Diagnostikoa) baita partaidetzazko izaera ere haien lanketan.

Balorazio-txostena edo Ebaluazioa: Bereziki baloratuko da ebaluazio-txosten bat aurkeztea (barrukoa nahiz kanpokoa), Haurren eta Nerabeen Tokiko Planaren jardueren exekuzio-maila aztertuko duena, baita aurreikusitako emaitzen/xedeen lorpen-maila ere. Ebaluazioaren kalitatea baloratuko da, lorpenak egiaztatzeak aukera ematen duten adierazleak eta iturriak erabiltzen diren neurrian, baita egindakoari buruzko gaitasun kritikoa eta konstruktiboa ere. Bestalde, aurrekontu-konsumoari buruz eskainitako informazioa baloratuko da (Zinegotzigoek emandako xehetasunekin) Planaren exekuzioan.

Jardueren Memoria bat aurkeztuz gero, proposatutako xedeak, aurrekontua eta lortutakoa bat datozela aztertzeko eta balioztatzeak gaitasuna islatuta geratzen dela baloratuko da.

Errealitatearen Diagnostikoa: Haurren eta nerabeen egoera, egon daitezkeen eskubide-urraketak eta haiei arreta emateko egituratu daitezkeen baliabideak ezagutzeko aukera emango duena. Sexuaren eta talde kalteberenen arabera banatutako datuak aurkezten direla baloratuko da.

Haurren Plana: Plana HEHn oinarrituta dago eta xede argiak finkatzen ditu, udal plangintzari lotuta eta adierazleekin edo etengabeko berrikuspen-mekanismoekin, eta aurrekontuaren aurreikuspena ere biltzen da. Aurreko Planarekiko proposatzen diren hobekuntza-alderdiak baloratuko dira, baita xede horretarako aurrekontua gehitu dela eta baliabideak bideratu direla ere.

Dokumentuen lanketak **partaidetzazko izaera** du.

Haurren eta nerabeen egoeraren arriskuen analisia aurkezten da eta bertan argi adierazten dira arreta behar duten egoera kritikoak eta horretarako hartzen diren neurriak.

Haurren eta Nerabeen Tokiko Planera bideratutako **aurrekontuan** udalerririk hartutako konpromisoa. Ematen den xehetasun-maila eta udal aurrekontu globalarekin duen erlazioa baloratuko dira.

Ikasteko gaitasunaren ebidentziak aurkezten dira, politikak gauzatu edota ebaluatzetik abiatuta.

Haurren eta nerabeen aldeko ekintzen **monitoretza edota ebaluazio-sistema** bat dago. Jardueretako asistentzia/partaidetza-mailari (estaldura) buruzko datuak aurkezten direla baloratuko da.

4.6. Babes-klausula

Aintzatespen Zigilua Tokiko Gobernuari kendu ahal izango zaio baldin eta ebidentzia objektiboren bat badago, globalki kontuan hartuta, haurren gaitan bere jardura-politika argi eta garbi eta behin eta berrirri kontraesanean dagoela Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenarekin, Zigilua jasotzea berekin ekarri zuen Haurren eta Nerabeen Tokiko Plana nabarmen eta justifikatu gabe betetzen ez dela, edo UNICEF Espainiako Batzordearekin sinatutako hitzarmenarekin bat ez datorrela. Babes-klausula hau UNICEF Espainiako Batzordearen eta Tokiko Gobernuaren artean sinatutako hitzarmenaren klausula gisa agertuko da adierazita.

4.7. Deialdira (Berritzea) aurkeztu beharreko dokumentuen Check list-a


Faseak (datak)	Nahitaez aurkeztu beharreko dokumentazioa	Check
Interes Adierazpenaren fasea (18.01.31ra arte)	Erregistro-formularioa deialdian (online plataforma), Tokiko Gobernuari eta prozesu honetarako kontaktuari buruzko oinarritzko datuekin.	☐
	Interes Adierazpena , Zigilua berritzeko deialdi honetara aurkeztean, alkateak sinatuta.	☐
	Osoko Bilkuran onetsitako Mozioa , Udaleko Idazkariaren sinadurarekin ziurtatuta, 2017. urtearen aurrekoa izango ez dena (edo horren ezean: alderdi politikoek sinatutako akordioa, 18.06.15a baino lehen Osoko Bilkuran berrestekoa, eta berretsi ondoren UNICEFi berehala bidali beharrekoa, edota Gobernu Batzordeak sinatutako dokumentua	☐
Dokumentu nagusiak (*) aurkezteko fasea (18.04.30era arte)	Kandidaturaren formulario-laburpen osatua . Formularioan ondokoei buruzko informazioa bilduko da: a. Haurren Partaidetza Organoa b. Barne Koordinazio Mekanismoa c. Kanpo Koordinazio Mekanismoa (ez da nahitaezkoa)	☐
	Aurreko Planaren balorazio-txostena edo ebaluazioa (edo, hala badagokio, Haurren eta Nerabeen aldeko Jardueren Memoria)	☐
	Haurren eta Nerabeen Diagnostikoa udalerrian	☐
	Haurren eta Nerabeen Tokiko Plana	☐

Gardentasuna(18.10.01era
arte)**Haurren eta Nerabeen Plana Udal Osoko Bilkuran onetsi
denaren frogia**18.10.01 baino lehen aurkeztu beharko da. Aurkezten ez bada,
atzera botako da eskaera.Tokiko herritarrekiko gardentasun-ariketa bat egin beharko da eta
horretarako haien eskueran jarriko dira Tokiko Gobernuaren **web
orrian** Memoria, Diagnostikoa eta Haurren eta Nerabeen Tokiko
Plana.*** Dokumentu nagusiei buruzko oharra:**

Dokumentuaren pisuak ezin du izan 10 MB-tik gorakoa. Ahal bada, ez kargatu dokumentuak irudi
gehiagirekin edo bereizmen handiko irudiekin.

Dokumentu nagusi bakoitza online plataformaren bidez entregatuko da, eta eranskinen aurkibide bat
gehitu beharko zaio. Eranskinak eskatzailearen eskuetan egongo dira, eta eskuragarri egongo dira UNICEF
Espainiako Batzordeak eskatu ahal izango baditu egiaztapenerako edo haien berri gehiago jakiteko.

5. Jardun Egokien Lehiaketa – IX. Deialdia



Jardun Egokien Lehiaketa – IX. Deialdia

5.1. Jardun Egokien Lehiaketa

Jardun Egokien Lehiaketak Tokiko Gobernuek edo bestelako erakundeek (ikastetxeak, elkarteak, fundazioak) sustatutako **ekintza eta proiektu zehatzak** saritzen ditu, HEHn inspiratuak, dagokien eremuan Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena aplikatzeko helburuz.

Proiektu eta ekintza eraginkorrak bultzatzearren –HEHn inspiratuak eta haurren eta nerabeen ongizatea bultzatzera bideratuak–, Jardun Egokien Lehiaketak eraginkorrak direla frogatu den esperientziei eta soluzioei buruzko informazioa eta ezagutzak jasotzen ditu, haiek hedarazteko.

Jardun egoki bat da “ondorio nabariak eta neurgarriak dituen ekintza edo ekimen bat, eredutzat har daitekeena beste batzuek ezagutu eta euren egoerara egokitu ditzaten”.

Tokiko Gobernuek edo gizarte-erakundeek esperientzia bat bakarrik aurkeztu ahal izango dute Jardun Egoki gisa. UNICEF Espainiako Batzordeak beretzat gordetzen du kategoria berriak gehitzeko aukera, Lehiaketara aurkezten diren ekintzen edukiaren eta kalitatearen arabera.

5.1.1. Jardun Egokien ezaugarriak

Beraz, Deialdira aurkezten den **“Jardun Egoki” orok izan behar dituen ezaugarriak** dira:

- Haurren eta nerabeen bizi-baldintzen hobekuntzan **eragin frogagarria eta nabaria** izatea.
- **Errepikagarria** izan behar du, hau da: beste udalerri batzuetara (betiere testuinguruetara egokituak) transferitzeko aukera egon behar du.
- Haurren partaidetza izan behar du, edo haurren eta nerabeen partaidetza bermatzeko guneak eta mekanismoak sustatu behar ditu.

Jardunak programatu ahal izango dira, edo ekintzak, jarraitasuna izango dutenak eta oraindik gauzatzen dihardutenak. Dena den, bete beharreko baldintza bat da jardun horiek ebaluazio-mekanismoak barnean hartzea.

Bereziki baloratuko da jarduera horiek hirian diharduten eta bertan bizi diren sektore desberdinen arteko lanaren emaitza izatea: administrazioa, herritarrak dagozkien elkarteak bitartez, eta sektore pribatua, oro har.

Jardun Egokiak aurkezteko, beharrezkoa izango da, beraz:

A. Jardun Egokia Jardun Egokien Lehiaketaren online formularioa aurkeztea. Formularioan haxe eskatzen da: Jardun Egokiaren emaitzak lortzeko proiektuan edo ekintzan bildu diren testuingurua, logika, baliabideak eta faktoreak berreraikitzea. Txosten bat edo memoria bat erantsi ahal izango da, jardun egokia sistematizatuko duena (zer egin den, zer konponbide izateko, nortzuei zuzentzen zaien, nola egin den, zer baliabiderekin, zer denboran).

B. Jardueraren Balorazio Memoria edo **Ebaluazioa**, egokitasuna, egingarritasuna, inpaktua, berritzeko gaitasuna, errepikagarritasuna eta abar frogatuko dituen.

Analisi Memoria bat aurkeztu ahal izango da, aurreikusitako xedeen edo emaitzen adierazleen segimendu-sistema bat barnean hartuko duena, edo ebaluazio-txosten bat, ekintzaren edo programaren inpaktua ebaluatuko duena, edo lortutako emaitzak neurtuko dituen.

5.1.2. Jardun Egokien kategoriak

Hona hemen Lehiaketan hautatutako jardun egokien kategoriak:

1. Hiri-plangintza iraunkorra, haurrek eta nerabeek eginga
2. Programa eraginkorrak, haur eta nerabe kalteberenei arreta emateko
3. Haurren eta nerabeen partaidetza-estrategia berritzaileak
4. Haurren eta nerabeen aurkako eta haien arteko indarkeria-arazoei heltzea
5. Inklusio sozialaren –generokoa, kulturala, etnikoa edo ekonomikoa– eredu arrakastatsuak
6. Kanpaina eraginkorrak, haurren eta nerabeen ongizatea hobetzera zuzenduak
7. Agenda 2030 edo Habitat III Agenda haurren eskubideen ikuspegi batekin tokiko eremuan aplikatzea.

Era berean, ondoko **kategoria espezifikoak** finkatzen da **HLH Aintzatespen Zigilua duten Tokiko Gobernuentzat**, HLH kudeatzeko moduei buruzko ikaskuntzak sorrarazteko eta partekatze asmoz:

- HLH Kudeaketa Ereduen esperientzia errepikagarriak

Kategoria honen adibide gisa, ondoko esperientziak aurkeztu ahal izango dira: haurren eta nerabeen Partaidetza Organoen eraketa, Koordinazio Mahaiak, partaidetzazko Diagnostikoen lanketa, Haurren Tokiko Planen lanketa, segimendua eta ebaluazioa, edo bestelako esperientzia edo hurbilketa metodologiko berritzaileak, HEHren izaerarekin bat datozenak. Azken kategoria hau HLH Zigilua duten udalerrietan bakarrik aplikatu daiteke.

5.2. Jardun Egoki bat aurkezteko baldintzak


Lehiaketara aurkeztu ahal izango dira:

- Tokiko Gobernuak eta gizarte-erakunde publikoak eta pribatuak (ikastetxeak, elkarteak, fundazioak eta abar), aurretik Haurren Hiri Laguna Aintzatespen Zigilua lortu badute edo ez badute ere (Tokiko Gobernuen kasuan).
- Deialdiaren Oinarrietan eskatutako dokumentuak ezarritako epeetan osatzeko eta aurkezteko jarrera eta baliabideak izatea.

Erakunde hautagaiak Jardun Egoki bat bakarrik aurkeztu ahal izango du deialdi honen barruan.

5.3. Epeak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

5.3.1 Jardun Egokiaren Lehiaketa 2017-2018 faseak eta epeak



5.3.2 Interes Adierazpena

Tokiko Gobernuak UNICEF Espainiako Batzordeari Deialdian parte hartzeko **Interes Adierazpena** bidaltzeko gehieneko epea Deialdiaren Oinarri hauek atera eta argitaratzen direnetik **2018ko urtarrilaren 31ra** arte izango da.

Interes Adierazpena osatzeko behar dira:

Interes Adierazpena

2018/01/31ra arte **Interes Adierazpenaren gutuna, alkateak, erreferentziako zinegotzi batek sinatua. Gizarte-erakundearen kasuan, legezko ordezkari batek sinatua.**
Arduraduna gutun bidez zuzenduko zaio Haurren Lagun diren Hiriak Programako Idazkaritza Teknikoari Aintzatespena Berritzeko deialdian parte hartzeko eskaera eginez.

Online formularioa, Programaren web orrian inskribatzeko (online plataforma), Tokiko Gobernuari eta prozesu honetarako kontaktuari buruzko oinarritzko datuak adieraziz.

5.3.3. Kandidaturen aurkezpena (dokumentuak)

Derrigorrezko dokumentazioa 2018ko apirilaren 30era arte bidali ahal izango zaio UNICEF Espainiako Batzordeari. Dokumentu nagusiak bakarrik bidaliko dira, eta UNICEFek eskatu ahal izango dituen eranskinen zerrenda.

Ondokoak aurkeztuz bidaliko dira kandidaturak:

Kandidaturaren dokumentuak

2018/04/30era arte Kandidaturaren **formulario-laburpena**, web plataforman (online) betea.
Eskaeraren formulario-laburpenean ezarritako jarraibideak betez, Jardun Egokien funtsezko elementuak adieraziko dira, hau da, Jardun Egokiaren emaitzak lortzeko proiektuan edo ekintzan bildu diren testuingurua, logika, baliabideak eta faktoreak.
Jardun Egokia sistematizatuko duen txosten bat edo memoria bat erantsi ahal izango da (zer egin den, zeri konponbidea emateko, nortzuei zuzendua, nola egin den, zer baliabiderekin, zer denboran).

Jardun Egokiaren Balorazio Txostena edo Ebaluazioa

Analisi Memoria bat aurkeztu ahal izango da, aurreikusitako xedeen edo emaitzen adierazleen segimendu-sistema bat barnean hartuko duena, **edo Ebaluazio Txosten** bat, ekintzaren edo programaren inaktua ebaluatuko duena edo lortutako emaitzak neurtuko dituen.

Dokumentu horrek eranskinen zerrenda bat hartuko du barnean, eta eranskin horiek argi adierazi behar dute aurkeztutako informazioaren errealitatea. Eranskin horiek eskuragarri izango ditu UNICEF Espainiako Batzordeak, ebaluazio-prozesuan eskatu ahal izango dituenak.

* Dokumentuei buruzko Ohar Orokorak:

Dokumentuaren pisuak ezin du izan 10 MB-tik gorakoa. Ahal bada, ez kargatu dokumentuak irudi gehiegirekin edo bereizmen handiko irudiekin.

Dokumentu nagusi bakoitza online plataformaren bidez entregatuko da, eta eranskinen aurkibide bat gehitu beharko zaio. Eranskinak eskatzailearen eskuetan egongo dira, eta eskuragarri egongo dira UNICEF Espainiako Batzordeak eskatu ahal izango baditu egiaztapenerako edo haien berri gehiago jakiteko. Eranskinak edukiz gero, informazioa osatzen duten argazki-erreportajeak edo bideoak Interneten egongo dira eta ebaluatzaileek kontsultatu ahal izango dituzten esteka bidez barne hartuko dira formularioaren testuan edo balorazio-/ebaluazio-txostenean.

5.3.4. Emaitzaren Jakinarazpena

Deialdi honen emaitza posta elektroniko bidez ezagutuko dute kandidatuek, 2018ko urriaren 31ra arte.

5.3.5. Ekitaldia

HLH Programako Idazkaritza Iraunkorrak behin Lehiaketa ebatzi ondoren, eta sarien emaitza jakinarazten denean, ekitaldi bat egingo da 2018ko azaroan zehar.

Ekitaldira bertaratzeak saridunari sorraraziko dizkion gastuak, berak ordainduko ditu.

5.4. Ebaluaziorako irizpideak eta prozedurak

Lehiaketan lehiatzen diren kandidatei buruzko ebazpena HLH Programa sustatzen duten instituzioen⁴ ordezkariak eta haurtzaroan eta nerabezaroan aditu diren beste batzuek osatutako Idazkaritza Iraunkorrak igorriko du.

Ebazpena kandidatuek aurkeztutako nahitaezko dokumentuen ex ante ebaluazioan oinarritzen da. Ebaluazio hori talde ebaluatzaile batek egingo du, UNICEF Espainiako Batzordearen barruko langileek edota haurren eskubideetan aditu ezagunek osatuak. Programako Idazkaritza Iraunkorrak zainduko du talde ebaluatzaile horren jarduna egokia, profesionala, objektiboa eta inpartziala dela.

Kandidaturen ebaluazio-sistema Deialdi honetako baldintzei erantzuten dien ebaluazio-eredu batez dago osatuta. Eredu horretan, ebaluatzaile bakoitzak objektiboki adierazten du bere balorazioa Deialdian aurkeztu beharreko nahitaezko dokumentazioa irakurri ondoren. Hona hemen ebaluaziorako irizpideak:

⁴ Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioa, Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioa, IUNDIA eta UNICEF Espainiako Batzordea.

A. Artikulazioaren / integrazioaren balorazioa:

Haurren eta nerabeen eskubideen eta egoeraren sentsibilizazio/sustapenerako ekintzak hartzen dira barnean, HEHren ezarpenean eragina izatera bideratuak.

Bat datoz politika publikoekin, udal, eskualde nahiz estatu mailakoekin.

Administrazio Publikoen eta gizarte zibileko erakundeen eta erakunde pribatuen arteko koordinazioa eskatzen dute.

Komunitatea sendotzera bideratuta daude.

B. Partaidetzaren balorazioa

Haurren eta nerabeen partaidetza bultzatzeko baliabideak bideratzen dira.

Haurrek eta nerabeek premien identifikazioan, diseinuan, ezarpenean eta ebaluazioan aktiboki parte hartzea eskatzen dute.

Haurren eta nerabeen premiei/eskaerei buruzko kontsulta-prozesu batean sortuak dira.

Haurren eta nerabeen iritzia eta proposamenak hedatzeko instantzien sustapena barne hartzen da.

Jardun Egokiaren informazioa formatu atsegin batean editatuta / aurkeztuta dago.

C. Jardun Egokiaren Kalitatearen balorazioa**Egokitasuna:**

Arrazoi bidez justifikatzen da ekimenak bere aurreko egoera aldatu ahal izango duela; onuradunak deskribatu eta kuantifikatzen dira eta ekimenak duen estalduraren berri ematen da, udalerriaren arabera. Bereziki baloratuko da haur eta nerabe kalteberenekin egindako lana.

Egingarritasuna:

Planteatutako helburuek egin nahi den horren berri ematen dute, esku-hartze koherentea proposatzen da kronograma, giza baliabide edota erabil daitekeen aurrekontuari dagokienez.

Inpaktua eta iraunkortasuna

Agerikoak dira Jardun Egokiak ondorioz ekarri dituen hobekuntzak. Lortutako aldaketan jarraitasun-bermeak aurkezten dira.

Berrikuntza:

Jardun Egokiaren izaera berritzailea justifikatzen da.

Errepikagarritasuna:

Jardun Egokiaren izaera errepikakorra justifikatzen da.

Balorazio-gaitasuna:

Segimendu- eta ebaluazio-sistema bat planteatzen da. Jardun Egokiaren ebaluazioan haurrek eta nerabeek parte hartu dutela baloratuko da.

5.5. Jardun Egokien Lehiaketan aurkeztu beharreko dokumentuen Check list-a

Faseak (datak)	Nahitaez aurkeztu beharreko dokumentazioa	Check
Interes Adierazpenaren fasea (18.01.31ra arte)	Erregistro-formularioa deialdian (online plataforma), kandidatuaren, jardun egokiaren eta kontaktuaren oinarrizko datuak adieraziz.	☐
	Interes Adierazpena , Ordezkaritza Institutuzionalak sinatua.	☐
Dokumentu nagusiak aurkezteko fasea (*) (18.04.30era arte)	Kandidaturaren formulario-laburpen osatua Jardun Egokiaren sistematizazio-txosten bat erantsi ahal izango da.	☐
	Ebaluazioa edo Balorazio Memoria , lortutako inpaktua neurtu eta aztertuko duena. Dokumentu horrek eranskinen zerrenda bat hartuko du barnean, eta eranskin horiek argi adierazi behar dute aurkeztutako informazioaren errealitatea. Eranskin horiek eskuragarri izango ditu UNICEF Espainiako Batzordeak, ebaluazio-prozesuan eskatu ahal izango dituenak.	☐

* Dokumentuei buruzko Ohar Orokorrak:

Dokumentuaren pisuak ezin du izan 10 MB-tik gorakoa. Ahal bada, ez kargatu dokumentuak irudi gehiegirekin edo bereizmen handiko irudiekin

Dokumentu nagusi bakoitza online plataformaren bidez entregatuko da, eta eranskinen aurkibide bat gehitu beharko zaio. Eranskinak eskatzailearen eskuetan egongo dira, eta eskuragarri egongo dira UNICEF Espainiako Batzordeak eskatu ahal izango baditu egiaztapenerako edo haien berri gehiago jakiteko. Eranskinak edukiz gero, informazioa osatzen duten argazki-erreportajeak edo bideoak Interneten egongo dira eta ebaluatzaileek kontsultatu ahal izango dituzten esteka bidez barne hartuko dira formularioaren testuan edo balorazio-/ebaluazio-txostenean.

Eranskinak



- | | | |
|---|---|--|
| 1. HLH Zigilua
Deialdirako
antolaketa-
prozesuaren
eskema | 6. Jardueren
Memoria lantzeko
orientazioa (1.
Eskaera) | 10. HLH Zigilua
Deialdirako
formularioa (1.
Eskaera eta
Berritzea) |
| 2. Glosarioa | 7. Balorazio-
txostena edo
ebaluazioa lantzeko
orientazioak
(Berritzea) | 11. Jardun
Egokien Lehiaketa
Deialdirako
formularioa |
| 3. Osoko bilkurari
zuzendutako
mozioa | 8. Diagnostikoa
lantzeko
orientazioak | 12. Hitzarmen-
eredua |
| 4. Interes-
adierazpenaren
gutuna | 9. Haur eta
Nerabeen aldeko
plana lantzeko
orientazioak | 13. Bitarteko
txostena |
| 5. Osoko bilkuran
onetsitako
mozioaren
ziurtagiria | | |

Dokumentazioa eskuragarri dago ondorengo url-an:

<http://ciudadesamigas.org/convocatoria-unicef-ciudades-amigas-infancia/>

Garapen Iraunkorrerako
MUNDU MAILAKO HELBURUAK



Trollbäck+Company / Project Everyone



www.ciudadesamigas.org



Ciudades
Amigas
de la Infancia



Aliatuak:

